



BERGARA BAZARA BAGARA DIAGNOSTIKOA

2011ko otsaila



Aurkibidea

DIAGNOSTIKOA

BERGARARREN IKUSPEGIA	3
AUZOEN IKUSPEGIA	6
GAIKAKO AZTERKETA	7
1. BIZTANLERIA	7
1.1. Biztanleriaren bilakaera	7
1.2. Gizartearen zahartzea	9
1.3. Lurraldetasuna	10
1.4. Jatorria	12
1.5. Hizkuntza	13
1.6. Egoera ekonomikoa	14
2. EKONOMIA	15
2.1. Jarduera-tasa	15
2.2. Sektore ekonomikoak	15
2.3. Ekonomiaren dinamismoa	21
2.4. Langileen fluxuak edo mugikortasuna	23
2.5. Langabezia	24
3. LURRALDE ANTOLAMENDUA	26
3.1. Lurra	26
3.2. Etxebizitzak	27
3.3. Mugikortasuna	28
4. INGURUMENA	30
4.1. Hondakinak	30
4.2. Natur baliabideak	30
4.3. Kutsadura	32
4.4. Azpiegitura handiak	32
4.5. Ingurumenarekiko sentsibilizazioa	32
5. HEZKUNTZA	33
6. KULTURA	36
7. KIROLA	38

Bergararren ikuspegia

Atal honetan herritarrek euren burua eta euren herria nola ikusten duten jasoko dugu, hau da, herritarren pertzepzioak, pentsamoldeak, ideiak...laburbiltzen saiatuko gara ikuspegi orokor batetik.

Herritarren ustez, Bergara herri ederra da, bizitzeko atsegina, lasaia, aukera asko dituen. Naturatik gertu dago, landa-auzo ugari ditu eta horrek herria edertzen eta aberasten laguntzen du. Bizitzeko tamaina egokia du, ez baita ez handiegia eta ezta txikiegia ere. Ondorioz, herrian denek ezagutzen dute elkar, herrian bertan daude hainbat zerbitzu eta guztia eskura geratzen da; eta hori gustuko dute bertakoek. Dena den, azken urteetako populazio jaitzierak kezka sortu du herritarren artean, krisi ekonomikoak, etxebizitzaren prezioak eta herriko giroaren jaitzierak populazioa beste herri batzuetara mugitzea eragin dezakeela uste dute, neurriak garaiz hartzen ez badira.

Herria ondo kokatuta dagoela diote herritarrek, Euskal Autonomia Erkidegoaren erdigunean, bi probintzien erdian, hiriburuetatik nahiko gertu eta komunikazio-lotune egokiekin. Kokaleku estrategiko horrek aukera berrietarako ateak zabal ditzake etorkizunean ere.

Bergarak historia aberatsa du eta horren erakusgarri dira alde zaharreko eraikinak. Ondare arkitektoniko hori da herritarren ikuspegitik, herriaren indargune nagusietako bat. Herri-guneko eraikinek iragan loriatsu baten berri ematen diote Bergarara hurbiltzen den edonori. Bergara erreferente izan da historikoki hainbat arlotan. Hezkuntzaren alorrean, esaterako, lehenbizi jesuitak egon ziren Bergaran, ondoren XVIII. mendean Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak hartu zuen irakaskuntza-zentroaren gidaritzatza eta gune garrantzitsu bilakatu zen, eta azkenik UNED etorri zen. Kulturaren alorrean ere Bergara ospetsua izan da, musika eta pinturan bereziki, eta XX. mendean kultura-gidaritzatza garrantzitsua egon zen herrian (Don Miguel Altunaren garaian, Promoción Cultural Bergaresa, Alkartunai...). Hori dela eta, Bergarak inguruko herrietako jendea erakartzen zuen. Ekonomiari dagokionez ere, Bergara puntako herria izan da gizaldiz gizaldi. XV. menderako jada ehungintza Bergarako aktibitate ekonomikoaren artean agertzen da eta XIX. mendeko bigarren erditik aurrera industrializazioa Euskal Herrira iritsi zenean bete-betean sartu zen industria modernoa ezartzeko prozesuan.

Datu horiek Bergara herri dinamiko eta ekimenduna izan dela adierazten dute, lidergo indartsua egon dela bertan. Elkartegintzaren egungo datuek ere hori islatzen dute. Bergaran 100 elkartetik gora daude, esparru ezberdinetan jarduten dutenak. Parte hartzeko kultura indartsua duen herri baten zantzuak dira horiek, herritar inplikaturatza osatutakoa. Horrela uste dute prozesuan parte hartu duten herritarrek ere; Bergaran badaela ilusioa, lanerako gogoia eta prestasuna.

Dena den, herritarren artean bada diagnostiko nahiko adostua: herdoiltze-zantzuak suma daitezke herriko giroan, herri-dinamikan, lidergo gaitasunean, elkartegintzan, ekonomian, etab. Bergara erreferentzialtasuna galtzen ari da hainbat arlotan. Bergara gainbehera prozesuan dagoela aipatzen dute herritarrek, herria triste dagoela, lokartzen ari dela.

Zentzu honetan, Bergarak lidergorako gaitasuna galdu du hein batean, herritarren ikuspegitik. Galera horretan agian Mendebaldeko gizartearen nagusitu den individualismo-prozesuak eragin du, eta Bergarako biztanleak konformistagoak dira egun, ekimen, ekintzailetasun eta errebeldia falta sumatzen da herrian. Balore galeraz mintzo dira herritarrek. Herriko kideak geroz eta individualistagoak eta berekoiagoak dira, gutxiago parte hartzen dute herriko ekintzetan, gizarte zibilaren mugimendua apaldu egin da.

Joera hori antzeman daiteke elkartegintzan esaterako. Elkarteetan ez dago erreleborik edo trasbaserik. Gazteak ez dira herrigintzan inplikatu, edo herrigintzak ez du asmatu gazteak erakartzen. Boluntario egiten den lana galtzen doa eta profesionalizatorantzko joera nabari da. Elkarlanerako kultura falta da: elkarleen artean koordinazio eta kohesio falta nabari da.

Ekonomian ere diagnostiko bera egin dute herritarrek. Azken urteetan iragan loriatsu horren errentetatik bizi izan da herria eta ez du erronka edo ekimen berriak martxan jartzeko ahalmenik

erakutsi. Dinamismoa eta lidergo-gaitasuna falta izan dira, beraz, eta garai onetan ere Bergarako ekonomiak ez du gora egin. Bestetik, elkarlanerako joera eza ekonomian ere errepikatzen da. Herriko enpresen artean ez dago harremanik, eta enpresa bakoitza bere negozioa zaintzera mugatu da. Eskualde mailako kooperatibismoak Bergaran fruitu gutxi eman dituela ere aipatu dute.

Elkarlanerako zailtasun horiek hezkuntzan ere somatzen dira. Ikastetxe bakoitzak bere ekimenak jartzen ditu abian, besteekin koordinatu gabe. Eta eskualdearekiko koordinazio-falta eta dauden sinergiak ez aprobetxatzea ere ahulgune moduan ikusten dute herritarrek arlo ezberdinetan: kirolean, kulturean, ekonomian, turismoa sustatzerakoan...

Herriko giroari dagokionez, Bergararrek beherakada aipatzen dute. Herria hiltzen ari dela diote zenbaitek, giroa galtzen ari da. Dendak eta tabernak ixten ari dira, jendea kanpora joaten da asteburuetan, etab. Arlo horretan ere, Bergarak erreferente eta erakargune izateari utzi dio.

Testuinguru honetan koka daiteke auzolanerako ohitura galtzea ere. Oparotasunean eta ongizatean oinarrituriko garapen-ereduak elkartasuna, auzolana, austeritatea eta elkarlana gisako baloreak alboratzea, eta individualismoa, berekoikeria eta kontsumismoa gisakoak nagusitzea eragin du. Prozesuan parte hartu duten herritarrek behin baino gehiagotan aipatu dute, hainbat arazoren muina herritarren balore eta jarreretan dagoela, eta gizartekide eta herrikide izan nahi badugu, elkarbizitzaren printzipioak errespetatu behar ditugula; pertsonen arteko elkarbizitza eta naturarekiko elkarbizitza kontuan hartuta. Horren haritik, arazo askoren iturburua (zikinkeria, autoa gaizki aparkatzea, ingurumenarekiko errespetu eza, erabili eta botatzearen kultura...) giza-jarrerak direla aipatu izan dute.

Gainbehera horren faktore-eragile moduan, saltzeko gaitasunik ez izatea ere aipatu izan da. Bergarak ez du asmatu bere burua saltzen, eta agian ezta duena baloratzen ere, eta hori alor ezberdinetan errepikatu da: ekonomian, kulturean, turismoan... Eta bergararren iritziz, herria oso salgarria da ikuspuntu askotatik.

Begararrak herriko indarguneen artean aipatzen ditu bertako pertsonak. Bergararra harro dago bergarar izateaz, eta harrotasun hori konplexu barik adierazten du. Herritarrak jende on gisa definitzen du bere burua, alaia, jatorra, irekia, euskalduna. Euskaltasunak pisu nabarmena izan du eta du Bergaran, baina era berean, herritarrak arduratuta daude euskararen erabilerari dagokionez, ezagutzak gora egin arren, erabilerak ez baitu neurri berean gora egiten.

Bukatzeko, hona hemen bergararrei euren herritik gehien eta gutxien gustatzen zaizkienak:



Gehien	Gutxien
<ul style="list-style-type: none"> • Herriaren tamaina, ez handia eta ezta txikia ere. Gertuko harremanak garatzeko aproposa. • Kokapena; hiriburuetatik gertu eta ondo komunikatua. • Herriaren edertasuna. • Alde zaharreko ondare historiko, arkitektoniko eta kulturala. Auzo-gune eta hiri-gunearen egitura eta aberastasuna. • Herriaren antolamendua. • Ingurunea, paisaia (basoak, ibaia, auzoak...). Naturarekin bat egiteko aukera erreza izatea. • Berde guneak, parkeak, pasealekuak, bidegorriak. • Herritarren izaera, bergarar izatearen harrotasuna. • Herriko lasaitasuna. • Herriko giroa. • Elkartegintza aberatsa, batez ere, kulturaren eta kirolaren arloan. • Gaitasun sortzailea, bereziki kultura arloan (musika eta pintura tradizionalki garrantzitsuak izan dira Bergaran). • Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa, (esate baterako: San Martzial eguneko jaiari herri osoa inplikatzeko da). • Kirol ekipamenduak (igerilekuak, futbol zelaiak, kirol eskaintza zabala...) 	<ul style="list-style-type: none"> • Trafikoaren arazoa, kotxe gehiegi. • Aparkaleku arazoa. • Erabilera askotariko antzoki edo auditoriuma ez egotea. • Egoera ekonomikoa: langabezia, tabernak, denda txikiak eta enpresak ixten ari dira. Ondorioz, jendea kanpora doa lanera, bizitzera, erosketak egitera... • Herriko giroan eta bizitasunean egon den jaitsiera edo beherakada. Bergararrak kanpora joaten dira gero eta gehiago aisialdian. • Ingurua galtzeko arriskua, azpiegitura erraldoien ondorioz. • Kutsadura (Deba ibaian esaterako) • Auzo eta herri-gunearen arteko komunikazio-lotura falta (bidegorriak, espaloiak, garraio publikoa) • Auzoetako mantenimenduan gutxi inbertitzea, kudeaketa zentralistaren ondorioz. • Elkartegintza heldu eta gazteen arteko trasea eza • Talde edo elkarten arteko harreman falta • Gaztetxoentzako (12-18 urteetarako) leku falta. • Eskaintza kulturala. • Mizpirualde zaharren egoitzaren kokapena • Bergararren errebeldia eza, inizatiba falta, konformismoa • Ondareak aprobetxatzen, ganoraz kudeatzen eta saltzen ez jakin izana.

Herritarrekin egindako prozesuan auzoz auzoko diagnostikoa ere egin dugu. Auzo bakoitzaren indarguneak, ahuleziak eta premiak eranskin moduan txertatuko ditugu, eta atal honetan ondorio orokorrak soilik jaso ditugu.

Bergarak auzo ugari ditu, eta hori herriaren indargune moduan aipatzen dute herritarrek. Auzo horiek gainera, izaera berezia dute eta auzo-identitatea indartsua da. Bergararekiko identifikazioari dagokionez, auzo gehienak herri-gunetik urrun sentitzen dira, nahiz eta fisikoki gertu egon (herriaren inguruko auzoen kasuan, behinik behin). Hori udalaren kudeaketa zentralistaren ondorio dela uste dute. Auzoek pisu gutxi dute herriko erabakietan eta ahaztuak sentitzen dira, hein batean. Faktore horrek auzoak kudeatzerako orduan zailtasunak eragiten ditu. Herri-guneko eta auzoetako jendearen arteko harremana ere ez dela oso gertukoa aipatu dute herritarrek.

Landa-auzoetako kideekin eta herri-gunearen inguruko auzoetako bizilagunekin egindako bileratan, honako indargune, ahulegia eta premiak nabarmendu dira:

INDARGUNEAK:

- Euskara
- Auzo-harrotasuna
- Auzo-aberastasuna
- Eskola txikiak
- Herri-batzarra
- Auzoetako jaiak
- Inguruak garbi mantentzea (basoak, zelaiak)
- Auzoetan bizi izateko gogoia

AHULEZIAK

- Baserriaren gainbehera
- Herri barruko urbanoa auzoetara ez joatea
- Ikastetxeen arteko ordutegia garraioarekin sinkronizatuta ez egotea
- Auzoen eta Bergara herri-gunearen arteko lotura eza
- Autoa erabili beharra
- Herri-guneko aparkaleku arazoa dela-eta, bertara joateko zailtasunak edo erosotasun eza
- Desoreka handia eta auzo batzuk ghetto bihurtzeko arriskua, immigrazio handia baitago

PREMIAK

- Baserriko bideak
- Etxebizitza berriak
- Nekazal jarduera gutxi
- Bidegorri falta edo bidegorriak luzatzea
- Denda falta
- Komunikazio falta (internet, telefonoak, garraio publikoa, etab.)
- Mugikortasuna, auzoak hiri-gunearekin lotzea (aparkaleku handiak, garraio publikoa, baserriarrentzat aparkatzeko txartela...)
- Jarduera osagarriak sustatzea
- Aisialdi-gunea (zentro zibikoa): ludoteka (haurrak), nagusiak, pertsonak... elkartzeko gunea
- Zerbitzu falta (farmazia, kutxazaina)

Gaikako azterketa


1. BIZTANLERIA

1.1. Biztanleriaren bilakaera

XX. mendean zehar Bergarako populazioak gora egin du nabarmen, 1980eko hamarkada ingurura arte. Igoera horretan bi momentu gako egon dira eta honako faktoreek eragin dute populazioaren hazkundera:

- 1) 1927. urtean Ubera eta Angiozar auzoak Bergara izatera pasa ziren. 1920tik 1930era populazioak % 27 egin zuen gora.
- 2) 1950-1970 urte bitartean gertatu ziren migrazio-mugimenduak, industrializazio-prozesuaren ondorioz. Bi hamarkada horietan Bergarako populazioa % 46 hazi zen.

BIZTANLERIAREN BILAKAERA




Iturria: Bergara zenbakitan

1980. urtean izan zituen Bergarak biztanle gehien: 15.759. Ordutik hona joera beheranzkoa izan da, ez oso nabarmen, baina modu konstantean. Azken 10 urteetan 300 pertsona inguru galdu ditu Bergarak. Jaitsiera horren arrazoiak bi izan dira nagusiki: 2004. urtetik hona berezko hazkundera negatiboa izatea (hau da, gehiago hiltzen dira jaio baino) eta bertakoak beste herri batzuetara bizitzera joatea (2005-2009 bitartean 600 lagun inguru). Bizilekuz aldatzeko arrazoiak etxebizitzaren prezioa eta lana izan dira, batik bat.


Dena den, populazioa ez da gehiago jaitsi etorkinen etorrerari esker.

Jaiotzak eta Heriotzak. Bergara, 1975 - 2008



Iturria: Bergara zenbakitan

BERGARARREN MUGIKORTASUNA 2005-2009



Gaur egun 14.666 pertsona bizi dira Bergaran, 7.294 gizonetako eta 7.372 emakumetako. Kopuru hori nahiko orekatua da prozesuan parte hartu duten pertsonen ustez. Indarguneen artean askotan aipatu da herriaren tamaina, ez handia eta ezta txikia ere, eta ondorioz, bizitzeko toki atsegina da. Honako arrazoiak aipatu dira, besteak beste:

- Gertuko harremanak ahalbidetzen ditu, herritarrek elkarren artean ezagutzen dira eta herriko giroa ona da.
- Kalean edozein ordutan ibiltzeko herri seguru eta lasaia da, pertsona nagusi zein umeentzat.
- Distantzia denak txikiak dira, herri eroso da alde horretatik.
- Zerbitzuak antolatzeko eta baliabideak kudeatzeko tamaina egokia du, harreman hurbilak garatzeko aukera baitago. Era berean, tamaina horrek herrian zerbitzu asko egotea ahalbidetzen du.


Dena den, etorkizunera begira ere Bergarako populazioak beheranzko joera horrekin jarraituko duela aurreikusten da, neurriak hartzen ez badira behinik behin. Jaitsiera horretan eragina izango duete egoera ekonomikoak (enpresak eta dendak ixten ari dira, eta beraz, jendea kanpora doa lanera eta, ondorioz, baita bizitzera ere; krisia dela-eta jaiotze-tasak behera egingo du gehiago;...), guraso izateko adina duten belaunaldiak txikiak izateak, unibertsitate presentzialik ez izateak (eta, beraz, ikaslerik ere ez dator kanpotik), etab. Bergararrek badute gai honen inguruko kezkarik, eta egindako bileretan behin baino gehiagotan mahaigaineratu da: jendea beste herri batzuetara joango dela bizitzera herria berpiztea lortzen ez bada. Herritarren ustez, biztanleak berreskuratu beharko lirateke, edo gehiago ez galdu.

1.2. Gizartearen zahartzea


Begarako adinaren egitura Mendebaldeko herrialdeetako egituraren parekoa da. Duela 30 urte egitura horrek piramidearen itxura zuen, jaiotze-tasak heriotza-tasak baino altuagoak baitziren eta, hortaz, populazio gaztea zen nagusi. Egungo egiturak, ordea, erronboaren itxura du; jaiotza-kopurua asko jaitsi da (1975ean 285 haur jaio ziren eta 2008. urtean, aldiz, 127) eta bizi-itxaropena, aldiz, luzatu egin da. Ondorioz, populazioa zahartzen ari da. Hona hemen 2010eko adinaren piramidean agertzen diren datuak:

- 0-20 urte bitartean: populazioaren % 17
- 20-65 urte bitartean: populazioaren % 62
 - a. 20-35 urte bitartean: % 18
 - b. 35-50 urte bitartean: % 24
 - c. 50-65 urte bitartean: % 20
- 65 urtetik gora: % 21
 - a. 65-80 urte bitartean: % 15
 - b. 80 urtetik gora: % 6

1981. urtean, berriz, populazioaren % 31 zegoen 0-20 urte bitartean, % 58 20-65 urte bitartean eta % 11k, berriz, 65 urte baino gehiago zituen. Biztanleen %2k zituen 80 urte baino gehiago.



Iturria: Bergara zenbakitan



Sexuari erreparatuta, ez dago aldaketa handiegirik eta nahiko parekatuta doaz emakume eta gizonezkoak adinaren arabera. 70 urtetik gora dago alde handiena: emakumezko gehiago daude gizonezkoak baino.

Etorkizunera begira, zahartze-joera hori areagotu egingo da. Azken hamarkadetako jaiotze-tasa baxuaren ondorioz, egun guraso izateko adinean dauden belaunaldiak oso txikiak dira, eta krisi ekonomikoak ere ez du lagunduko familien tamainak handitzen. Hortaz, jaiotza kopurua ez da handituko. Bestetik, medikuntzaren aurrerapenei eta bizi-kalitatean izan ditugun hobekuntzei esker, bizi-itxaropena asko luzatu da Mendebaldeko herrialdeetan eta, hortaz, beranduago hiltzen gara.

Azken hamarkadan, migrazio-mugimenduek zahartze-indizea apur bat eten edo mantentzerazi dute, lanera etorri diren etorkinak gazteak izan baitira eta bertakoek baino seme-alaba gehiago izateko joera baitute. Dena den, egoera ekonomikoak okerrera egin ahala, migrazio-mugimenduen uholdea ere apaldu egingo dela aurreikusten da.

Gizartearen zahartzeak bete-betean eragingo du gizarteko hainbat alorretan: osasunean, ekonomian, lurralde antolamenduan, etxebizitza-politikan, harreman-ereduetan... Etorkizuneko joera zaharrak beren etxeetan denbora gehiagoz egotea izango da, ezingo baita bermatu zahar guztientzako egoitzarik, eta horretarako etxebizitzak egokitu egin beharko dira. Gai hori badago jada hainbat ikerketa-guneetako ikerlerroen artean.

1.3. Lurraldetasuna

Hona hemen auzo bakoitzean egun bizi den biztanle kopurua, eta azken bost urteetako biztanle kopuruaren bilakaera:

	2005	2006	2007	2008	2009	24/11/2010
ANGIOZAR	296	304	303	309	310	302
ALDAIEGIA	70	65	63	63	61	64
ARITZETAKO S. MIGEL	52	56	55	53	52	54
GOIAUZO	72	69	67	67	66	61
ELORREGI	105	107	107	108	109	108
ARANE	59	56	57	56	57	52
SAN JUAN	122	122	122	121	128	120
UBERA	150	143	148	140	136	133
BASALGO	54	54	55	55	51	54
OSINTXU	443	445	445	455	471	474
MURINONDO	62	65	63	63	60	61
ELOSUA	15	16	16	18	17	18
SANANTONABAT	38	40	36	41	40	40
OZAETA-IBARRA-AZKARRUNTZ	500	494	492	487	486	481
ZUBIAURRE-MARTOKO-S.ANTONIO	1194	1198	1231	1200	1168	1193
FLEMING, ALKABIETA, LASKURAIN, URDANGARIN, IBAIONDO, KATABIA, MATXIATEGI, OXIRONDO, HERRILAGUNAK	1910	1866	1804	1749	1743	1719
ARANERREKA-IRABURU-BOLU-KOLDO ELEIZAL.	1766	1785	1761	1721	1690	1657
ZUBIETA	365	376	405	399	375	355
L. SAN LORENTZO	429	414	402	396	400	463

Iturria: Bergarako Udala

Datu horien arabera, San Lorentzo eta Osintxu dira gehien hazi diren auzoak (%7-8 artean). Biztanlez gutxitsu diren auzoak, berriz, Matxiategi, Aranerreka, Bolu eta Ubera izan dira. Orokorrean auzoak

bertakoa ez den jendea hartzeko irekita daude, eta auzoak ez husteko politika eraginkorrak garatu beharko liriateke. Herritarren iritziz, Bergarako populazioa mantentze aldera, landa-eremuetan edo inguruko auzoetarako etxebizitza-politika egokia landu beharko litzakete eta auzoak zerbitzuz hornitu.

Adinaren ikuspegitik, potentzialki “gazteak” edo “zaharrak” izan daitezkeen auzoak aztertu ditugu. Hona hemen auzoen egoera adinaren ikuspegitik:

	Guztira	20-40	%	70TIK GORA	%
ANGIOZAR nukleoa	146	52	% 36	23	% 16
ANGIOZAR diseminatua	156	27	% 17	29	% 19
ANGIOZAR GUZTIRA	302	79	% 26	52	% 17
ALDAIEGIA	64	12	% 19	14	% 22
ARITZETAKO S. MIGEL	54	12	% 22	11	% 20
GOIAUZOA	61	12	% 20	17	% 28
ELORREGI	108	23	% 21	24	% 22
ARANE	52	10	% 19	16	% 31
SAN JUAN	120	29	% 24	30	% 25
UBERA	133	33	% 25	23	% 17
BASALGO	54	9	% 17	15	% 28
OSINTXU NUKLEOA	337	99	% 29	46	% 14
OSINTXU DISEMINATUA	137	31	% 23	41	% 30
MURINONDO	61	19	% 31	15	% 25
ELOSUA	18	3	% 17	3	% 17
SANANTONABAT	40	11	% 28	11	% 28
OZAETA	170	51	% 30	27	% 16
IBARRA	208	52	% 25	54	% 26
AZKARRUNTZ	103	28	% 27	17	% 17
GUZTIRA	481	131	% 27	98	% 20
ZUBIAURRE	513	176	% 34	64	% 12
MARTOKO	493	129	% 26	100	% 20
S. ANTONIO	187	72	% 39	18	% 10
GUZTIRA	1.193	377	% 32	182	% 15
A. FLEMING	71	18	% 25	21	% 30
ALKABIETA	135	35	% 26	24	% 18
B. LASKURAIN	140	25	% 18	16	% 11
E. UDANGARIN	26	9	% 35	6	% 23
IBAIONDO	91	17	% 19	22	% 24
KATABIA	41	10	% 24	16	% 39
MATXIATEGI	1.076	221	% 21	306	% 28
OXIRONDO	62	12	% 19	10	% 16
HERRILAGUNAK	77	16	% 21	13	% 17
GUZTIRA	1.719	363	% 21	434	% 25
ARANERREKA	737	200	% 27	36	% 5
IRABURU	108	35	% 32	8	% 7
BOLU	319	86	% 27	27	% 8
KOLDO ELEIZAL	493	159	% 32	23	% 5
GUZTIRA BOLU	1.657	480	% 29	94	% 6
ZUBIETA	355	103	% 29	64	% 18
L. SAN LORENTZO	463	131	% 28	61	% 13
BERGARA GUZTIRA	14.666	3.729	% 25	2.319	% 16

Iturria: Bergarako Udala



Bergarako populazioaren % 25 20-40 urte bitartean dago. Horiek izango liriateke epe motz-ertainera guraso potentzialak. Lurraldetasunari begiratuta, %20tik behera daude Aldaiegia, Basalgo, Arane, Elosua, Laskurain, Ibaiondo eta Oxirondo. Azken multzo hori da, hain zuzen, guraso potentzial gutxien dituen multzoa (Flemingetik Herrilagunak auzoetara doana). Guraso potentzial gehien, berriz, Angiozar erdigunean, Murinondon, Zubiaurren, San Antonion, E. Udangarinen eta Iraburun.

Oro har, Zubiaurre-San Antonio-Martoko da proportzionalki guraso potentzial gehien dauden auzo multzoa. Auzo zaharrenen artean, berriz, beren populazioaren %25etik gora 70 urtetik gorakoak direnak

azpimarratu ditugu: Goiauzoa, Arane, San Juan, basalgo, Murinondo, SanAntonabat, Ibarra, A. Fleming, Katabia, eta Matxiategi. Katabi eta Araneren kasuan populazioaren % 30 baino gehiago da zaharra. San Lorentzo eta Bolu nahiko orekatuta daude ikuspegi honetatik.

Jatorriaren arabera, Osintxu eta Zubietan kontzentratzen dira Europar Batasunetik kanpoko etorkinak. Espainiatik etorritakoak, berriz, Zubiaurren. Horrek eragina izan du auzo horien osieran. Batetik, auzo horiek gaztetu egin dira etorkinen etorrerarekin. Bestetik, ordea, auzo horietako euskalduntasunak behera egin du. Etorkinen "ghetoak" sortzeko arriskua dago. Etxebizitza-politikak izan du etorkinen kontzentratzean eraginik. Etorkinak auzo horietara doaz bizitzera etxebizitza zaharren eskaintza merkea dagoelako bertan. Bergararentzat, berriz, auzo horiek ez dira oso erakargarriak etxe zaharrak eta apur bat "degradatuta" daudelako, bertakoen ustez.

Bertakoen iritziz, auzo horietan etorkinak integartzeko plan bat landu beharko litzateke.




Iturria: Bergarako Udala

Bukatzeko, ikuspegi ekonomikotik ere badago auzoen artean desorekarik: esate baterako, herritarrek Matxiategi auzo aberats moduan ikusten dute eta Zubiaurre, aldiz, auzo behartsu moduan.

1.4. Jatorria

Ondorengo grafikoan Bergarako biztanleen osaera ikus dezakegu jatorriaren ikuspegitik. 2009an Europako Batasunetik kanpo jaiotako bergararrak 621 ziren. Horietatik % 62 Amerikan jaiotakoak, %17 Afrikan, % 16 Asian eta % 3 Batasunetik kanpoko Europan. 621 horien artean % 52,3 emakumezkoak ziren eta gainerako % 47,7 gizonezkoak.



Iturria: Bergarako zenbakitan

Biztanleriak behera egin duenez azken urteetan, proportzionalki etorkinen eragina handiagoa da.

Bergararren ustez, kanpoko komunitateekin ez dago aparteko arazorik, agian ez dagoelako kontaktu gehiegirik, eta etorkinen "ghetoak" sortzeko arriskua ikusten dute, lehen esan bezala, auzo batzuetan kontzentratzen baitira. Etorkinak hobeto integratzeko saiakera egin beharko litzateke, elkarrengandik ikasiz, elkar aberastuz, Bergara kulturen topagune ere bihurtuz, eta marjinazioa ekidinez. Bergaran badago jada mugimendu txiki bat, etorkinak euskarara erakartzeko eta bergararren iritziz, euskarak integratziorako tresna izan behar luke.

1.5. Hizkuntza

2006ko datuen arabera, populazioaren %67,8 euskalduna da, %16,3 ia euskalduna eta %15,8 erdalduna. Oro har, Bergaran hizkuntza gaitasuna Debagoienean (%64)eta Gipuzkoan (%53) baino altuagoa da. Gaitasun hori handiagoa da haur eta gazteen artean. Izan ere, gaur egun Bergarako lehen hezkuntzan D eredu dago soilik. Azken hamarkadetan gertatu da aldaketa hori: 1983-1984 ikasturtean ikasleen % 54 matrikulatu zen D ereduan, eta 20 urte beranduago, berriz, ikasleen % 99. Unibertsitate aurreko ikasketei dagokionez, berriz, 2009-2010. ikasturtean ikasleen % 94,7a D ereduan matrikulatuta zegoen, % 1,1 B ereduan eta % 4,4 A ereduan. 25 urtera bitartekoen artean, euskara-gaitasuna % 96koa da, ondorioz. Gainerako, adin-tarteetan, berriz, 25-64 urte bitartean hizkuntza-gaitasuna % 69koa da eta 65 urtetik gorakoan artean, azkenik, % 64koa. Azken hamarkadan helduen adin-tarteetan apur bat gora egin du gaitasunak, eta zaharren adin-tarteetan, berriz, behera. Auzoak aztertuz gero, Zubiaurre eta Matxiategi dira auzo erdaldunenak (% 35 eta % 26, hurrenez hurren).

Ama hizkuntzari dagokionez, 2006ko datuen arabera, % 53k du euskara ama hizkuntza moduan, % 39k gaztelania eta % 6k biak. Faktore hau, ama hizkuntza edo etxeko hizkuntza, garrantzitsua izan ohi da ezagutzatik erabilerarako jautsian.

Erabilerari dagokionez, datuak apalagoak dira. Klean % 44koa da euskararen erabilera, 2010eko kale-neurketako datuen arabera, eta etxean, berriz, % 40koa. Etxeko hizkuntzan euskara berreskuratzen ari gara belaunaldi gazteak euskaldunak direlako, eta faktore garrantzitsua da erabilerarako.

Auzoei erreparatuta, Osintxun nabarmen egin du behera euskararen erabilera. Horren eragile izan da, batez ere, etorkinen etorrera. Bestetik, Zubiaurre-San Antonio-Labegarrietan euskararen erabilera Bergarako gainerako guneeetan baino nabarmen baxuagoa da.

Adin-tarteari dagokionez, erabilera altuena haurren artean dago (% 62) eta ondoren gazten artean (% 43). Sexuaren arabera, oro har, ez dago alde handiegirik, gazteen adin-tarteetan izan ezik: 15-25 urte bitartean erabilera askoz altuagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Bikote-harremanetan euskarak indarra galtzen du: bikote artean gaztekeraz eta seme-alabei euskaraz egiteak badirau. DBHko ikasleen artean pasatako inkesta baten arabera, gazteek errazago egiten dute gaztekeraz edo bietan.

Egoera honek kezka eragiten du bergararren artean. Ezagutza igo egin da azken urteetan, baina erabilerak behera egin du hainbat auzotan eta adin-tarte estrategikotan. Beherakada horren arrazoi moduan honakoak aipatzen dituzte, besteak beste:


- Hedabideen eragina
- Aisialdia gaztekerazkoa da askotan (hainbat kirol-jardueretan, esate baterako)
- Euskararekiko atxikimendu eskasa
- Erosotasuna
- Prestigio falta
- Elebarkarrei euskararen beharra ez erakustea (eta, ondorioz, euskaldun 3 + erdaldun 1= 4 erdaldun)
- Etorkinek euskara ez ikastea

Dena den, azken urteetan aurrerapauso nabarmenak egin direla ere aipatzen dute eta euskararen berreskurapenean lan asko egin dela. Hizkuntza Bergarako indargune moduan ikusten dute herritarrek, eta izaera euskaldun hori zaindu egin behar dela diote.

Etorkizunari begira, haur eta gazteen gaitasunak neurri handi batean goia jo du eta ez du gora egingo, elebidun kopuruaren aldetik, behintzat. Elebitasun motaren aldetik, hiztunak hizkuntza bakoitzean duen gaitasun erlatiboaren aldetik, alda daiteke egoera eta faktore hori izango da erabakigarria erabileran gora egiteko.

1.6. Egoera ekonomikoa

Krisiak nabarmen eragin du Bergarako biztanleen egoera ekonomikoan eta horren erakusgarri langabeziak eta Udaleko gizarte-laguntzen onuradunen kopuruak nabarmen egin dute gora. Esate baterako, gizarteratzeko errenta eta gizarte larrialdietarako laguntzetan 2000. urtean 117 onuradun egon ziren eta 2009. urtean 358. Horietatik % 30 inguru Espainiar Estatutik kanpokoak dira. Hona hemen bilakaeraren grafikoa:



Krisi ekonomikoaren eraginez, biztanleen egoera aldatu egin da eta diferentzia sozialak areagotu egin dira. Langabeziak egoera larriak agertu ditu. Ekonomia arlokako bileran parte hartuon arabera eskualde mailan, ezberdintasun ekonomiko handienak Bergaran daude, aberastasun ekonomikoaren banaketan desoreka handiena duen herria da Bergara. Horretan eragina du enpresen egiturak. Eskualde mailan kooperatiba gehiago dago eta horrek oreka handiago dakar.

Bergararren kezka-iturri nagusietakoa da ekonomiaren egoera. Izan ere, ekonomiak beste hainbat alorretan du eragina: Bergaran lanik ez badago, bertakoak kanpora joango dira lan bila eta, ondorioz, bizitzera, eta herria hustu egingo da; erosketagaitasuna jaitsi denez, kontsumoa ere jaitsi egin da, eta ondorioz, herriko dendak ixten ari dira, eta herriko giroa itzaltzen ari da; lapurretak ugartu egin dira, eta segurtasun pertzepzioa txikiagotu, etab. Ekonomiak ondorio nabarmenak ditu, hortaz, herriko dinamikan.

Etorkizunera begira, aurreikuspenak ez dira itxaropentsuak egungo joerak mantenduz gero. Adituen ustez, egoera ekonomiko hori txartzuz joango da. Batetik, biztanleriaren zahartzearen ondorioz, jende zahar gehiago egongo da, pentsio baxuak izango dituzte eta, beraz, erosketagaitasun baxua. Bestetik, krisiak oraindik ez du hondoa jo, datozen urteetan egoerak txarrera egingo du, eta horrek pertsonen bizi-baldintzetan eragingo du. Gainera, langabetuak oraindik prestazioak jasotzen ari dira, baina askori aurki 2 urteko prestazioak bukatu egingo zaizkio. Eta bukatzeko, krisialdi honetan hainbat enpresa erregulazioan daude, eta hori gerora langileen kaltetan izan daiteke, langabezia-egunak kontsumitzen ari baitira.

2. EKONOMIA

2.1. Jarduera-tasa

EUSTATEko datuen arabera, hona hemen populazio aktibo eta ez aktiboaren bilakaera:

	POPULAZIO AKTIBOA	LANDUNAK	POPULAZIO EZ AKTIBOA
1986	6.369 (% 41)	5.272	9.267 (% 59)
1991	6.722 (% 43)	5.724	8.795 (% 57)
1996	6.645 (% 43)	5.664	8.635 (% 57)
2001	7.175 (% 48)	6.656	7.790 (% 52)

Iturria: EUSTAT

2001eko EUSTATEko datuen arabera, Bergarako populazio aktiboa 7.175 pertsonen osatzen zuten, hau da, biztanleriaren % 48k. Horietatik 6.656 ziren lanean zihardutenak, populazio aktiboaren % 93 eta populazio guztiaren % 44. Bilakaerak populazio aktiboaren pisua handitzen joan dela diosku, baina eskualdeko datuetatik urrun dago; Bergaran eskualdean baino 8 puntu baxuagoa da jarduera-tasa.

Eskualde mailako datuekin alderatuta:

	POPULAZIO AKTIBOA (2001)	POPULAZIO EZ AKTIBOA (2001)
Bergara	7.175 (% 48)	7.790 (% 52)
Debagoiena	30.990 (% 56)	24.709 (% 44)

Iturria: EUSTAT

Ez-aktiboaren kasuan, Bergarako daturik ez dugun arren, eskualde mailakoak hartuko ditugu erreferentzia moduan. Debagoienan 2001ean % 45 jubilatu edo pentsionistak ziren, % 31 etxeko langileak eta % 22 inguru ikasleak.

INEMeko datuen arabera, 2010eko Bergarako jarduera-tasa 48,92koa da. Jarduera-tasa hori nahiko baxua da, batez ere emakumeen artekoa. Ekonomiaren azterketa egin zuen arlokako lantaldearen iritziz, emakumeek ez dute industrian lan egiteko joerarik eta horrek zer ikusi zuzena du hezkuntzarekin eta gizartearen pentsamoldearekin. Etorkizunean, ziurrenik tasa horrek jaisten jarraituko du populazioaren zahartzearen eta jaiotze-tasa baxuaren ondorioz.

2.2. Sektore ekonomikoak

Bere kokapenagatik, Bergara bidegurutze garrantzitsua da eta kokapen horrek Bergarako ekonomia baldintzatu du hein batean. Bergara bi probintzien artean dago kokatua, bi eskualde industrialen erdigunean: Debagoiena eta Debarrena. Gainera, lur bidezko mugikortasunerako errepide-azpiegiturak hobetu dira azken urteetan (Maltzaga-Gasteiz eta Beasain-Durango bukatu gabe). Horrek beste lurralde batzuekiko artikulazioa eta konexioa errazten du, eta kanpora begirako industria-eredua garatzea ahalbideratu du.


2.2.1. Langile-kopurua sektoreka

Bergara industri tradizio handiko herria izan da. Historikoki bi izan dira Bergarako jarduera nagusiak: ehungintza eta metalurgia. XV. mendean jada agertzen dira ehungintzari buruzko lehen aipamen idatziak. 1497. urtean Espainiako Errege Katolikoek Bergarako ehungileei luzatutako ordenantzen berrespena jaso dago Bergarako artxiboan. XIX. mendearen erdialdean industrializazio prozesua hasi zenean ere, ehungintzak toki garrantzitsua izanaz jarraitu zuen. Herrian ezarri zen lehen industria ehungintzari lotutakoa izan zen eta Gipuzkoa mailan ere lehenengoetakoa izan zen.

Jarduera honi loturiko hainbat enpresa eta negozio sortu ziren: tindategiak... Duela gutxira arte izan du presentzia jarduera honek Bergaran, 2010. urtean itxiko baita ehungintzari loturiko azken enpresa.

Metalurgiari dagokionez, XIX. mendearen erdialdean siderurgia tradizionalaren industrializazioa hasi zen. Arrasaten sortu zen Union Cerrajerak galdaketa lantegi bat jarri zuen Bergaran, egur-ikatzeko bi labe garaiekin. Altos Hornos de Vergara zuen izena. Gerora produktuak dibertsifikatzen hasi ziren: makina-erreminta, torlojugintza, etxeko tresna elektrikoak, autoentzako osagaiak,...

Sektorekako datu eguneraturik ezin izan dugu lortu eta 2006ra bitarteko datuak erabiliko ditugu erreferentzia moduan. Bilakaerari dagokionez, hona hemen 1980-2006 urte bitartean sektore bakoitzaren pisua zein izan zen




Iturria: Bergara zenbakitan eta EUSTAT

Azken urteetan joera aldaketa nabaria izan da, Bergaran ez ezik Mendebaldeko herrialde guztietan. Lehen sektorea eta industria pisua galduz joan dira eta zerbitzuek gorantz egin dute. Historikoki industria izan da Bergarako jarduera nagusia, baina 2006ko datuen arabera, industria eta zerbitzuen pisua parekatuta daude.

Ingurune geografikoko datuekin alderatuta, 2001eko datuen arabera, eskualde mailan ere industria da langile gehien dituen sektorea eta sektore horren pisua Bergaran baino apur bat handiagoa da gainera. Izan ere, tradizio industrialia eskualde osoan egon da eta ezin dugu ahaztu 50eko hamarkadan Arrasate izan zela Euskal Herriko eta agian baita mundu mailako esperientzia kooperatibo garrantzitsuenetakoaren sorgunea. Nekazaritzak pisu handiagoa du Debagoieneran Bergaran baino, bikoitza hain zuzen, nahiz eta sektore honetan lanean diharduen jende kopurua oso baxua izan.

Gipuzkoarekin alderatuta, berriz, Bergaran presentzia handiagoa du industriak, eta gutxiago zerbitzuek eta nekazaritzak. Euskal Herriko eta Europar Batasuneko argazkien arabera, Gipuzkoako joera hori areagotu egiten da; nekazaritzak eta zerbitzuek pisu handiagoa dute eta industriak txikiagoa. Etorkizuneko joera ziurrenik zerbitzuen sektorea handitzea izango da.




Iturria: Bergara zenbakitan

Sexuari erreparatuta, 2001ean landunen % 62 gizonenekoak ziren eta % 38 emakumezkoak. Emakumezkoek batez ere zerbitzuetan egiten dute lan (% 69ak). Gizoneneko gehienek, berriz, industrian (% 72ak). Inguruneko datuekin alderatuta, landunen proportzioak mantendu egiten dira, eta landunen % 60 inguru dira gizonenekoak. Lanbideari dagokionez, emakumezko gehienek zerbitzuetan lan egiten dute, eta Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan are nabarmenagoa da hori. Debagoiengan, berriz, gehiengoak sektore horretan lan egiten badu ere, industrian emakume gehiagok egiten du lan. Gizoneneko datuetan ere badago alderik. Gipuzkoan eta Euskal Herri mailan parekatuz doaz industrian eta zerbitzuetan lan egiten duten gizoneneko kopuruak.

Sektore bakoitzaren barnean, hona hemen jarduera-eremu bakoitzeko langile-kopurua EUSTATen sailkapenaren arabera:

LANDUNEN BANAKETA 2001



■ Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	■ Arantza eta akuikultura
■ Ateratze industriak	■ Manufaktura industriak
■ Elektrizitatea, gasa eta ura	■ Eraikuntza
■ Merkataritzaren eta konponketa	■ Ostalaritza
■ Garriak, bilketaren eta komunikazioak	■ Finantza-bitartekaritza
■ Enpresa-zerbitzuak	■ Herri-administrazioa
■ Hezkuntza	■ Osasuna, abaitaritzaren eta gizarte-zerbitzuak
■ Bestelako gizarte-zerbitzuak	■ Etxeko langileak

Iturria: EUSTAT

2.2.2. Lehen sektorea



Lehen sektoreak, esan bezala, Bergarako landunen % 1 baino gutxiago hartzen du gaur egun (40 lagun inguru). Azken 30 urteetan, % 4 izatetik ia desagertzera pasa da. Dena den, landa-eremuan bizi den jende-kopurua ez da jaitsi momentuz, baina auzo horietan nekazaritzatik bizi den populazioa 70 urtetik gorakoa da, edo ezkongabeak dira, eta horiek hil ahala, baserriak husten joango dira. Lehen sektorea desagertu egingo da orduan, ez bada alde zuzeneko eraginkorrik garatzen.

2009ko datuen arabera, guztira 397 baserri daude, gehienak Angiozarren eta Osintxun (72 eta 42 hurrenez hurren). Hona hemen zenbait datu:



Baserriak	397
Belardiak	1.747
Basoak	4.284
Behiak	2.295
Ardiak	2.582
Ahuntzak	129
Behorrak	269

Auzokako datuei dagokionez, hona hemen banaketa nolakoa den:


BASERRIAK





BELARDIAK



ABELBURUAK



BASOAK



Prozesuan parte hartu dutenek adostasun zabalez adierazi dute egun ez dagoela baldintza egokirik baserriak bizitzeko. Eskaera badago herritarren aldetik, baina eskaintza falta da. Esate baterako, kontsumo talde bat sortzeko saiakera egon da, eta bazkideak egon badaude, baina nekazariak falta dira.

2009. urtean baserriarrei egindako inkesta batean, baserrian jarraitzeko oztopo nagusiak zeintzuk ziren galdetu zitzairen. Baserrien % 25ak erantzun zuen inkesta eta arrazoi nagusiak honako hauek izan ziren: soldata (% 25), tramite burokratikoak (% 24,5), inbertsioak (% 15,8), aintzat hartzea (% 15) eta oporrak (% 8,6). Prozesuan parte hartu dutenek, aktibitate ekonomiko honetatik bizitzeko zailtasunak adierazten dituzten beste hainbat arrazoi ere aipatu dituzte, besteak beste: baserriko jakintzaren transmisioa etetea, supermerkatu handiekin lehiatu ezina, azokaren gainbehera, lur onenak eta lautadan zeuden lurra urbanizatzea eta industriarako erabiltzea, nekazaritzak bere prestigioa galtzea, lan kulturaren gertatu diren aldaketak, etab.

Zailtasun horien ondorioz, hein batean, lehen sektorea aktibitate ekonomiko gisa desagertzen joan da, eta baserriarrek industria edo zerbitzuetako lanarekin konbinatzen dute baserriko lana. Halaber, errentagarritasun ekonomiko ipar hartuta, baserriarrek basoetan monolaborantzarako joera hartu zuten duela hamarkada batzuk, eta horren adierazle da gure paisaian hain ohikoa den pinua. Ondorioz, baso autoktonoak galduz eta zatikatuz joan dira.

Deba bailaran, oro har, oso landa lur gutxi dago, eta aurrera begira ere ez dago nekazaritza lurrik zehaztuta. Herritarren iritziz, Udalak, industriarekin egin duen moduan, nekazaritza-lurra ere kontuan izan beharko litzuke eta horiek kudeatu. Izan ere, egun 40 lagun inguru bizi badira ere nekazaritzatik, Bergarak hori baino potentzialitate handiagoa du. Eta ekonomikoki sektore honek pisu gutxi badu ere, sektore garrantzitsua da, ez horrenbeste bertatik sortuko den ekonomiagatik edo aberastasun ekonomikoagatik, baizik eta beste alor batzuetan duen eraginagatik (kultura, ingurumena, lurraren zaintza...). Nekazaritza galtzen bada, erakargarritasuna galduko du Bergarak, paisaia erabat aldatuko baita. Lurraldea batzeko, kohesioa mantentzeko, inguruak garbi izateko, gertuko harremanak garatzeko, lurrarekiko harremana mantentzeko... beharrezkoa da nekazaritzak bizirauten jarraitzea herritarren iritziz.

Nekazaritza-ereduari dagokionez, egungo sistema ekonomikoan etorkizun gutxi ikusten diote herritarrek nekazaritzari. Izan ere lursail handiak behar dira sektore horretatik bizitzeko, esplotazio handiak... Lan kultura ere asko aldatu da: lehenbizi baserriak tailerrera etorri zen lanera jendea eta, ondoren, tailerretik administraziora. Fenomeno horri "gizartearen funtzionarizazioa" deitu dionik ere bada. Lan kulturaren aldaketa horrek eta bizimodu aldaketak lehen sektorearen gainbeheran ere izan du eraginik.

Nekazaritza aktibitate bokazionala da eta horrela izanez jarraitu beharko luke. Herritarren ustez, irtenbidea ez da krisi garaia dela-eta, bokaziorik gabeko jendea nekazaritzara bideratzea, bokaziodun jendea erakartzea baizik. Egoerari erantzuteko bestelako ekarpenak ere izan dira:

- Herritarren kontzientziazioan eragitea, baserriko eta bertako produktuak kontsumitzeko
- Produktu ekologikoak sustatzea eta diruz laguntzea (krisi garaian, enpresa industrialei ere lagundu zaien moduan)
- Kontsumo-taldeak sortzea, baserriarrei lansari duin bat izatea ahalbidetuz, eta gertuko harremanak landuz.
- I+G+B aplikatzea sektore honetan, eta inguruari eta lurraldetasunari lotutako nekazaritza-ereduan ikerketa eta berrikuntza sustatzea
- Araudi malguagoak izatea, esate baterako, baserriak banatzerako orduan. Dena den, gai honetan ez dago adostasunik, lurren banaketak etorkizuneko esplotazioak garatzea eragotzi baitezake.

2.2.2. Bigarren sektorea

Tradizionalki herri industrialia izan da Bergara eta historia horrek eragin handia izan du ekonomiaren eta industriaren bilakaeran. Bergarako industriaren aktibitate zentralak ehungintza eta metalurgia izan dira.

Lehena, desagertze bidean dago, eta metalurgiari dagokionez, azken urteetan produktu beraren inguruan garatu da (torlojugintza batez ere). Arlokako lantaldearen iritziz, gaur egun balio-erantsi gutxiko produktuak egiten dira herrian eta produktu horiek atzerrian merkeago ekoiztu daitezke.

Beste esparru geografikoekin alderatuta, bilakaera ez da positiboa izan Bergaran. Urte onetan ere Bergarak behera egin du eta lehiakortasuna galtzen joan da. Jarduera garrantzitsu batzuk zeuden, baina horiek ahuldu ahala ez da ordezkorik sortu. Ez da sustatu aktibitate berriak sortzea. Horretan eragina izan dezake Bergaran berrikuntza eta ikerketarako gunerik egon ez izana edota berrikuntza teknologikoan gehiegi inbertitu ez izana (eskualde mailan, berriz, enpresa eta unibertsitatearen arteko elkarlanak berrikuntza-poloak edo ikerketa-guneak sortu ditu)

Erabakimenaren ikuspegitik, 3 enpresa talde daude: erabakimena Bergaran dutenak; eskualdean dutenak; kanpoan dutenak (multinazionalak). Multinazionalen esku daude, hain zuzen, Bergarako enpresa handienak (Arcelor, Candy, Mayc...), enpresa traktoreak izan daitezkeenak, baina azken urteetan ez dute ikerketarik sustatu ia eta nahiko egoera larrian daude. Eta erabaki-guneak kanpoan daudenez, herriarekiko duten inplikazio eta leialtasuna txikiagoa da. Enpresa ertainari dagokionez, aurrekoek baino gehiago inbertitu dute ikerketa, garapen eta berrikuntzan (Soraluce, Metagra...). Esate baterako, estanzio enpresetan ahalegin bat egin da produktuetan balio-erantsia txertatzeko eta teknologian inbertitzeko.

Alor honetan aipamen bat merezi du enpresa kooperatiboen gaiak, horietan erabakimena enpresako langileen esku baitago. Bergaran ez du oihartzun handiegirik izan Arrasateko kooperatiben mugimenduak, eta bilera askotan aipatu da hori, ziurrenik krisi ekonomikoaren testuinguruan kooperatibek bestelako erantzun-gaitasuna dutelako. Eskualdeko talde ekonomiko garrantzitsuenak da MCC, EAEko industria lanpostu sortzaile handienetakoa, eta horren inguruan sortu dira unibertsitatea, ikerketa-zentroak, Saiolan,... Talde horrek eskualdeko herri handienetan barreiatu du bere eragina, eta Oñatin ere talde kooperatibo indartsua dago egun (Ulma), MUK ere badu bere fakultatea, ikerketa-guneak badaude, eta unibertsitate eta enpresa munduaren arteko harremanak estuak dira.

Bergarak, aldiz, ez du ildo horretatik jo eta ez du jakin kooperatiben bultzada aprobetxatzen, ez du bertako talde ekonomiko indartsurik, ez du gaurdaino sektore teknologikoetan eta unibertsitate eta enpresen arteko lankidetzan apustu estrategikorik egin. Aitzitik, herriko enpresen artean nahiko harreman gutxi egon da, proiektuak elkarlanean aurrera ateratzeko zailtasunak egon dira eta askotan sinergiak ez dira aprobetxatu. Zentzu horretan, joera indibidualista nagusiago izan da lankidetzarako joera baino. Herritarren ustez, enpresen arteko lankidetzaren sare hori bultzatzeko lidergo papera jokatu duen eragile bat behar da. Eta kooperatibekiko harremana ere landu egin beharko litzateke. Bergarak lokalismorako joera utzi, eta eskualde mailako ikuspegia landu beharko luke arlo ekonomikoan (eta baita beste zenbait arlotan ere).

Bestalde, Lanbide Heziketako bi ikastetxe daude Bergaran eta unibertsitatea (UNED). Horrek aukera eskaintzen du bertako industriarako langileak formatzeko eta enpresa eta ikastetxeen artean ikerketak garatzeko. Gisa horretako esperientziak badaude eta modu positiboan baloratzen dira. Azken urteetan lanbide heziketako ikastetxeei esker ere hainbat negozio berri sortu dira eta martxan daude.

Bukatzeko, Bergarako industriak ez du lur arazorik. Industriarako lurak izateak aukera berriak ere zabaldu dizkio Bergarari, Danobat enpresa bertara etortzea esaterako. Etorkezunera begira ere, industriak garatzeko nahikoa lur badauka herriak eta industriguneak komunikazio aldetik ondo kokatuta daude (autopistatik gertu...). Batzuen ustez, lur horiek kanpotik industria berriak edo berritzaileak erakartzeko aprobetxatu beharko lirateke (esate baterako, energia berriztagarrien alorrekoak). Beste batzuen ustez, ordea, etorkizunean zaila izango da kanpotik enpresak ekartzea, eta bertatik sortu beharko lirateke aktibitate berriak. Eta, arlokako lantaldearen iritziz, lur industrial hori zertarako erabili pentsatu beharko litzateke. Izan ere, etorkizunean geroz eta garrantzia handiagoa hartuko dute bigarren eta hirugarren sektorea uztartzen dituzten aktibitateek eta herriak horretarako prestatu beharko luke hirigintza ikuspegitik ere.

2.2.3. Hirugarren sektorea

Herritarren iritziz, Bergararen tamaina eta kokapena egokia izan daiteke zerbitzuak antolatzeko eta baliabideak kudeatzeko, gertuko harremanak lantzea ahalbidetzen baitu eta geografikoki bi eskualderen artean kokatuta baitago. Gainera, kulturaren eta kirolaren arloan dagoen mugimenduak ere zerbitzuak garatzeko aukerak eskaintzen ditu.

Hala ere, gaur egun sektore hau beherantz doa. Zerbitzu kualifikatu gutxi daude (ingeniaritzak, aholkularitza, auditoriak...), hainbat alorretan (finantza-arloan, esaterako) zerbitzu zentralak ez daude Bergaran eta komertzio txikiak gainbeheran daude. Azken urteetan hainbat denda itxi dira; komertzioa zaharkituta geratu da, eta dendari asko zaharrak dira eta ez dago jarraipen generazionalik.

Gainbehera horretan hainbat faktorek eragin dute herritarren ustez. Zenbaiten iritziz, komertzioen kokalekua ez da egokiena, alde zaharreko kaleetan daude kontzentratuta, kale horiek oso estuak dira eta ez da erraza jendea erakartzeko bideak jorratzea. Dena den, eragin handiena erosketa-ohituretan gertatu diren gizarte-aldaketek izan dute. Gaur egun joera merkataritza-gune handietarakoa da, eta herriko denda txikien biziraupena zailtzen ari da. Herritarren iritziz, Bergarako komertzioak ez dira erosteko eredu berrietara egokitu. Esate baterako, bezeroa dendan sartzean dagoena begiratzeko eta aukeratzeko askatasuna ematea.

Bergaran aisialdirako aukera gutxi daudela ere aipatzen da eta, ondorioz, jendea kanpora joaten da eta bertan egiten ditu erosketak. Edota kanpoan lan egiten duen jendeak, beste herri batzuetan egiten ditu erosketak. Ondorioz, kaleak hutsik geratzen ari dira eta herriko giroa apaltzen ari da. Irudi horrek duela urte batzuetako argazkiarekin talka egiten du. Duela urte batzuk Bergara zen jai-giroaren zentroa eskualde mailan, eta inguruko herrietatik bertara etortzen ziren. Gaur, aldiz, joera alderantzizkoa da, eta Bergararak dira kanpora joaten direnak. Eta joera horrek herriko merkataritzan eragin du bete-betean. Hori dela eta, hainbatek diote Bergarak "lohiri" bilakatzeko arriskua duela.

Bestetik, Bergara turismoa egiteko leku aproposa izan daiteke, baina alor hori ez da gehiegi garatu orain arte. 2010. urtean 3.270 pertsona pasa ziren Bergarako turismo-bulegotik, horietatik % 66 Bergaratik kanpokoak. Potentzialitatea, ordea, handia da: Bergara da monumentu katalogatu gehien dituen Gipuzkoako 2. herria, ondare historiko, kultural eta arkitektoniko aberatsa du (orain arte gehiegi zaindu eta babestu gabea), ingurumen aldetik ere erakargarria da, lorategi historikoa ere hor dago eta ez da behar beste baloratu eta zaindu bertako aberastasuna, UNED, ikuskizun kulturalak eskaintzeko aukerak, ehungintzaren alorrean egindako ibilbidea (ehungintzaren prozesua azaltzen duen museoa zabaltzea, adibidez), gastronomia (gozogintza), etab. Turismo eredu jasangarri bat garatu beharko litzateke herritarren ustez.

Eskualde mailan duela 15 urtetik hona ekin zaio bide horri, batez ere Oñatin, baina ez da eskualde mailako osagarritasunik bilatu. Arlo hori garatzeko asmotan, 2010eko uztailean, Bergarako ondare historiko-artistikoa balore turistikoan jartzeko plangintza onartu zuen Udalbatzak, kulturaren eta turismoaren arloetan behar diren berrikuntza eta garapenaren oinarriak ezartzeko. Turismoaren garapenak ostalaritza berpizteko aukera ere emango luke. Eta horretarako, aliantzak bilatu beharko lirateke, ez soilik turismoaren garapenerako, baita industria, merkataritza edota kulturaren alorrak berpizteko ere.

2.3. Ekonomiaren dinamismoa

Begarak historikoki lidergo-gaitasuna eta inizatiba izan du hainbat arlotan, baita alor ekonomikoan ere. Garai batean Bergara erreferente izan zen, erdigune izan zen industrian, kulturean, unibertsitate zabaltzen (UNED edo lehenago XVIII. mendean Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eskutik), merkatua, etab. Erdi Aroan jada ehungintza errotuta zegoen Bergarako ekonomian eta industrializazioaren sorreran ere Bergara erreferente izan zen. Baina azken urteetan, lidergo-gaitasun horren beherakada nabari da, ekonomian zein kulturean edo gizartearen, agian gizartearen individualismo-prozesuak eraginda. Eta lidergo falta horrek eragin nabarmena izan du Bergarako ekonomiaren

gainbehera-prozesuan eta Bergarako ekonomiaren dinamismo faltan: dendak eta tabernak ixten ari dira, industriak beherakada nabarmena izan du.... Bergara zentro izatetik, periferian kokatzera pasa da. Azken urteetan Bergara errentetatik bizi izan da; ez du gauza berririk erakarri eta lehengoak ere ez dira mantendu batzuetan.

Prozesuan parte hartu dutenek diotenez, Bergarako ekonomiaren ahulguneetako bat ekintzaile eza da. Ekimena falta da herrian, eta ondorioz, erreferentzialtasuna galtzen doa. Eta ekimen falta hori arlo publiko zein pribatuan nabari da. Izan ere, Udalak ere askotan funtzio asistentziala betetzen du, baina ez da erraza Udaletik proiektu berritzaileak eta ekimen berriak diseinatu eta martxan jartzea. Udalak proaktiboagoa izan behar luke, eta politikak eta proiektuak garatu.

Arlo pribatuan, berriz, gazteen ekimen falta azpimarratu dute lantaldeek. Gazteek ez dute negozio berriak sortzeko interesik erakusten, beren helburua lanpostu on eta egonkor bat topatzea da, baldintza duinekin eta askorik arriskatu gabe. Batzutan kanpotik etortzen dira Bergarara negozioak zabaltzera (fruta-dendak, harategiak...), eta bertakoak kanpora joaten dira lan bila. Udaletik negozio txikiak potentziatu beharko lirateke, eta horretarako laguntzak eman (lokalak kasu). Esate baterako, Arrasaten negozioak irekitzeko lokalak eskaintzen zaizkie ekintzaileei, eta Bergaratik ere hainbat negozio Arrasatera joan dira arrazoi horrengatik eta ondoren ez dira itzultzen.

Bestetik, Udaletik ez da sustatu herri inguruko auzoetan edo landa-auzoetan aktibitate ekonomikoak zabaltzea. Urbanizazio-arauak askotan zurruneziak dira zenbaiten ustez, eta auzoetan aktibitate ekonomikoak martxan jartzea debekatzen dute (esate baterako, lokal komertzialak). Auzoetan alor hori indartzea garrantzitsua izango litzateke landa garapenerako ikuspegitik, auzoek bizitza gehiago izateko, auzokideak bertan bizitzen geratzeko edo kanpotik jendea erakartzeko, lehen sektorea indartzeko (euren produktuak bertan komertzializatzea ahalbidetuz), etab. Auzo inguruko zerbitzu eta aktibitateak bertako biziraupena eta garapena bultzatzera bideratu beharko lirateke, hortaz. Izan ere, batzutan auzoetan kokatuta dauden zerbitzu edo industriek auzoari berari ekarpen gutxi egiten diote (Osintxuko industriguneak, esaterako).

2009ko datuen arabera, Bergaran 1.250 establezimendu zeuden eta horiek 6.541 pertsonari ematen zioten enplegua. Batez beste establezimenduen tamaina 5,23 langilekoa da.

Hona hemen establezimenduen banaketa:

ESTABLEZIMENDU-MOTAK	KOPURUA
Industria eta energia	172
Eraikuntza	131
Merkataritza	358
Ostalaritza	80
Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioak	84
Finantza-bitartekaritza eta enpresa-zerbitzuak	227
Bestelako zerbitzu-jarduerak	198
GUZTIRA	1.250

Iturria: EUSTAT

Ekonomiaren dinamismoa azertzte aldera, azken urteetan sortu eta desagertu diren enpresak azertu ditugu. Dena den, 2003ko eta 2010eko datuak hartu ditugu horretarako, 10 langile baino gehiago dituzten enpresak, eta azken urte hauetan ez da aldaketa handiegirik nabari.

2003. urtean 73 enpresa zeuden 10 langile baino gehiago zituztenak. Horietatik 12 itxi egin dira edo desagertzeko zorian daude. Hona hemen horien zerrenda:

Asa Coatings S.L.	Movilla S.A.
Bergara UTE (Autopista)	Textil Narvaiza S.A.
Industrias Linacisoro S.A.	Orni S.A.
G.M.S.M. (Gestión y Mantenimiento Servicios Municipales)	GKN Lazpiur S.L.
Grupo de Pinturas Industriales S.A. (Grupisa)	Tremefil S.A. (Gasteizera joan zen)
Algodonera San Antonio Industrial S.A. (Bulego Komertziala mantentzen du)	
Tavesa Algodonera (Laster itxi egingo dela jakinarazi da)	

Gainerako enpresetako gehienek langile kopurua murriztu dute eta, batzuk, gaur egun ez dira 10 langilerara heltzen.

2010. urtean ere 73 enpresa daude 10 langile baino gehiago dituztenak. Azken urteetan 10 enpresa sortu dira:

Aberiz S.L.	Hierros Navarra, S.A.
Danobat Railway Systems	Hotel Ormazabal
Embalan sistemas de embalaje	Ikergas, S.L.
Eroski	Industrias Azkoin, S.L.
Errasmodel	GOIT Goiena telebista


Ditugun datuen arabera, egun dauden enpresetatik 5ek 100 langile baino gehiago dituzte: Candy (400), Arcelor (285), Geysler (275), Soraluze (250), Eroski (110).

Etorkizunera begira, gizartearen behar berriek aktibitate ekonomiko berriak ekarriko dituzte. Horien artean indarra hartuko du ziurrenik zahartzaroarekin lotutako ekonomia eremuak. Gizartearen zahartzearen ondorioz, asistentzia pertsonaleko arloa lantzeko esparrua izango da. Prebentzioaren, zaintzaren eta produktu berriak garatzearen ikuspegitik. Gaur egun, bertako jendeak ez du esparru horretan lan egin nahi, kanpotik etorri behar izan da jendea zerbitzu hori ematera. Lan horri duintasuna eman beharko litzateke; zerbitzu oso garrantzitsua da eta kualifikazioa eskatu beharko litzateke, ekonomikoki errekonozitu... Bestetik, prebentzioa bultzatu beharko litzateke zerbitzu pertsonalizatua eskainiz; memoria lantzeko, taldean lantxo batzuk egiteko... Eta etxean bizitzen jarraitzeko zerbitzuak sustatu behar dira. Etorkizunean, jende zahar asko egongo denez, erakunde publikoek (gizarte-zerbitzuek) ezingo diote aurre egin egoera horri eta ahalik eta gehien etxean mantentzeko ahalegina egin beharko da.

2.4. Langileen fluxuak edo mugikortasuna

Mugikortasunari buruz ditugun datuak 2001era bitartekoak dira. 1996tik 2001era behera egin zuen bertan lan egiten zuten bergararren kopuruak (%68tik %59ra). Aldiz 1000 pertsona gehiago etorri ziren Bergara lanera epealdi horretan.

2001. urtean 4.172 bergararrek Bergaran egiten zuten lan (%59), kanpotik Bergaran 2.842k eta kanpoan lan egiten zuten bergararrak 2.425 ziren. Hona hemen sasoi berean eskualdeko, probintziako eta Euskal Herriko datuak:



Iturria: Bergara zenbakitan

2.5. Langabezia



2010eko iraileko datuen arabera, 738 langabetu daude Bergaran eta langabezia-tasa % 10,28koa da. Azken bost urteetan langabeziak nabarmen egin du gora: 2005eko irailean 451 langabetu zeuden Bergaran, beraz, ia % 40 egin du gora ordutik hona. Krisia hasi zenetik, berriz, hona hemen langabeziaren inguruko bilakaera-datu batzuk:

	2008ko iraila	2009ko iraila	2010eko martxoa	2010eko ekaina	2010eko iraila
Langabezia-tasa	% 6,11	% 10,02	% 10,78	% 9,89	% 10,28
Langabe kopurua	439	719	774	710	738

Iturria: INEM

Inguruko datuekin alderatuta, Bergararen egoera ez da hain txarra. Baina etorkizunean tasa horrek gora egingo du ziurrenik, eta egoera larriagoa izango da.

Hona hemen langabeziaren egoera, sexuaren eta adinaren arabera:




Iturria: Bergara zenbakitan

Sexuari dagokionez, gaur egun gizonezko gehiago daude langabezia emakumezkoak baino (% 53 gizonezko eta % 47 emakumezko 2010eko irailean). Joera hori EAeko datuetan ere atzeman daiteke, ere nabarmenago: EAEn 5 langabeetatik 3 gizonezkoak dira. Azken bi urteetako krisialdiak eragin du joera aldaketa, lehen langabezia-tasa altuagoa baitzen emakumezkoen artean.


25-44 urte bitartekoak dira langabetu gehienak, eta krisiaren eragina ere adin-tarte horretan nabaritu zen gehien hasieran. Azken urtean, dena den, adin-tarte horretan soilik egin du langabeziak hobera.

Sektoreari dagokionez, 2008. urtean industria eta zerbitzuetan egin zuen langabeziak gora nabarmen eta 2009an, berriz, eraikuntza eta zerbitzuetan egin du gora. Industriaren alorrean, aldiz, azken urtean behera egin du apur bat kopuruak, baina krisiaren eragina nabaria da oraindik ere. Hona hemen azken urteetako bilakaera eta langabeziaren banaketa sektoreka:

LANGABEZIAREN BILAKAERA SEKTOREKA



ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA SEKTOREKA (2010-09)



Iturria: Bergara zenbakitan

Langabezian dauden ikasketa-mailari dagokienez, 2009ko eta 2010eko datuak ditugu. Iaz langabetu gehienek lanbide heziketako ikasketak zituzten, baina 2010ean egoera aldatu egin da. Sektorekako grafikoa ikusi dugun moduan, industrian langabeziak behera egin du eta urte berean lanbide heziketako ikasketak dituzten pertsonen kopurua nabarmen jaitsi da. Aldiz, gainerako guztietan igoera nabaritu da.

	2009	2010
Lehen hezkuntza	152	184
Bigarren hezkuntza	122	276
Lanbide heziketa	297	81
Goi mailako zikloak	91	124
Unibertsitatea	45	73

Iturria: INEM

3. LURRALDE ANTOLAMENDUA

3.1. Lurra

Bergarak guztira 7.710 hektarea ditu eta lurra banaketa honakoa izango da plan orokor berriaren arabera:

Lurzoru urbanizaezina	7.414
Babes berezikoa	939
Basoa	5.561
Interes naturalistikoa	358
Nekazaritza, abeltzantza eta landa zabala	1.342
Nekazaritza, abeltzantza eta landa zabala (balio estrategiko handikoa)	132
Basoa, mendi barbana	33
Ingurumenaren hobekuntzarako	5
Hiri-lurzorua	220
Etxebizitzak	73
Jarduera-ekonomikoak	128
Ekipamenduak	15
Parkeak	5
Lurzoru urbanizagarria	65
Etxebizitzak	5
Jarduera-ekonomikoak	59
Ekipamenduak	1

Plan berriaren arabera, industriarako eta jarduera ekonomikoetarako lur berriak ezarriko dira, lehengo planean zehazturikoak agortuta baitaude jada. Hiru eremu aurreikusten dira: a) Larramendi (jada martxan), b) Kukubaso-Ipiñarri eta c) Mekolalde. Industrieguneak herritik kanpo eta sare nagusietatik gertu egotea ondo ikusten dute herritarrek.

Etxebizitza berriak lehen industria-lur gisa kalifikatutako herri-guneko eremuetan egingo dira. Izan ere, erdigunean zeuden hainbat enpresa itxi egin dira (Movilla, S.A. esaterako) eta beste batzuk tokiz aldatu dira (Tavex Algodonera, S.A. edo Tornillería Deba, S.A.L., kasu). Gisa honetara ez da lur ez urbanizagarria ukitu beharrik izango. Dena den, hurrengo urteetan ez da eraikitze beharrik atzematen herri-gunean. Auzoetan (Angiozarren, Uberan, Osintxun), berriz, etxebizitzak eraikitze beharra ikusten da, bertako auzotarrentzat nahiz kanpokoentzat auzoan geratzeko aukera izan dezaten eta auzoen garapenerako.

Herritarren iritziz, etorkizunari begira nahikoa lur dago etxebizitza eta industriarako. Historikoki ere, herriko lur onenak etxebizitzetarako eta industriarako erabili izan dira. Deba erreka luzeran horretarako aprobetxatu izan da betidanik.

Plan orokor berriarekin jarraituz, lur urbanoetan gune berde eta leku librea %21,41, izango da eta lurra eta urbanismoaren legeak 2/2006, 7.9 artikuluan sektore urbanizagarrien lurra %15 ean finkatzen du.

Bestetik, ondare arkitektoniko, arkeologiko eta naturalak babestuko dira. Kasko historikorako ekinbide batzuk ere jasotzen dira, esate baterako, trafikoa mugatzea. Herritarren iritziz ondore arkitektonikoa da duen indargunetarikoa, dituen lorategi historiko kalifikatu eta aitortuekin batera, eta herriko parkeak zabaldu eta txukundu beharko lirarteke .

Bestetik, badira lurralde antolamenduarekin lotutako kezka herritarren artean: aurrera begira ez dago nekazaritzarako lurrik zehaztuta eta lurraldea antolatzerako orduan sarritan ez dira gizarteko tendentziak kontuan hartu. Esate baterako, zaharren egoitzara joateko irisgarritasun arazoak daude eta joan-etorrirako zein bertakoek herriaz disfrutatzeke beste toki baten jarri beharko litzatekeela uste dute herritarrek. Gainera, etorkizunean gizartearen zahartzea dela-eta, adin-sektore honetarako azpiegitura gehiago beharko dira eta planak ez du horretarako lurrik kalifikatzen. Hezkuntzarako, berriz, lur asko dago eta etorkizunean ikasle-kopurua beheraka joango da.

Halaber, ekipamendu kulturalerako lurrik ere ez dago. Zentzu honetan, interes handia piztu zuen ekarpen bat egon zen herritarren artean: herriko ondare arkitektonikoa (elizak, kasu) ekipamendu kulturalerako erabiltzea. Herrian bi eliza daude, oso handiak dira eta oso gutxi erabiltzen dira. Orain San Pedron obrak egin behar dituztenez, gauza gehiagotarako aprobetxatzeko moduko tokia izan daitekeela uste dute herritarrek. Horregatik etor daitezkeen premiei aurre egiteko lurra kalifikatuta egotea garrantzitsua da.

Bestetik, hilerria herri barruan dago gaur egun eta herritarren ustez herritik kanpo beharko luke.

Auzoei dagokionean, antolamendu planak behar dituzte, auzo bakoitzari egokitutakoak eta bertakoen parte-hartzearekin. Gainera auzoen garapenerako legislazio eta araudi malguak eta egokituak behar dira. Bukatzeko, auzotarren iritziz, auzoko hainbat eraikin egokitu beharko lirateke bertan auzotarren erabilerarako.

3.2. Etxebizitzak:

Hona hemen etxebizitzaren inguruko hainbat datu:


Etxebizitza kop.	5.636
Bataz besteko pertsona kopurua etxe-bizitza bakoitzeko	2,6
18 urtetik gora bakarrik bizi direnak	%10,3
Baserri kopurua	397

Etxebizitza horietako batzuk hutsik daude, eta horiek alokatzeko arazoak daude. Etxebizitza zaharrak berritzeko ere arazoak daude, arrazoi ekonomikoengatik batez ere. Bestalde, familia eredu aldaltzen doa (guraso bakarrek familiak edo bakarrik bizi direnak), eta etxebizitza-politika gizarteko joera berrietara egokitu beharko litzateke. Oro har, etxebizitza txikiagoak behar dira edo hirugarren adinerako zerbitzu egokiak dituzten etxeak edo pisu tutelatuak. Izan ere, egun jende zaharra etxebizitza handiegietan bizi da eta ezin dio askotan gastuari aurre egin, baina aldaketa kulturalak (betiko etxea mantentzea, jabetza pribatua...) asko kostatzen dira eta jabetza ereduari eusten diogu.

Herritarren iritziz, alde zaharrean hainbat etxebizitza hutsik daude eta etxe berri eta garestiak eraiki dira. Ondorioz, jende gaztea beste herri batzuetara joan da eta prozesuan parte hartu dutenek herri-bizitza galtzen doala uste dute.

Etxebizitza	LIBREAK	TASATUTAKO BABESEKOAK	REG. OROKORREKO BABESEKOAK	GUZTIRA
L. URBANOA	674 (56,59%)	268 (22,50%)	249 (20,91%)	1.191
L. URBANIZAGARRIA	26 (13,13%)	22 (11,11%)	150 (75,76%)	198
GUZTIRA	700 (50,40%)	290 (20,88%)	399 (28,72%)	1.389

Bakarrik bizi diren pertsonak adin-talde eta sexuaren arabera (18 urtetik gora). Bergara, 2010



3.3. Mugikortasuna:

Bergara bidegurutze garrantzitsua da bere kokapena dela-eta. Gaur egungo errepide-azpiegiturak: GI-627 Gasteiz-Maltzaga, GI-632 Beasain-Durango (bukatu gabe), GI-2632 Bergara-Elgeta, GI-3750 Bergara-Azkoitia, GI-3360 Bergara-Angiozar-Elgeta (GI-2639). AHTko obrak ere hasita daude. Herritarren ustez, aurrerantzean egiten ari diren eta egingo diren azpiegitura handi hauen eragina aukera bihurtzeko eta onura ateratzeko azterketak egin beharko lirateke.

Mugikortasun-ereduari dagokionez, erabilera pribatuko autoa da nagusi. Hona hemen hainbat datu: azken 20 urteetan Bergarako biztanleria % 5 gutxitu da, familia-kopurua % 28 hazi da eta ibilgailu-kopurua, berriz, % 59. 2006ko datuen arabera, familia bakoitzak batez beste 1,66 ibilgailu ditu.

Mugikortasun-planeko datuen arabera, 2002. urtean pertsonen desplazamendu gehienak barrukoak ziren (% 68) eta horietatik % 68 oinez egiten dira, % 29 ibilgailu pribatuan eta % 3 publikoan. Hori dela eta, oinezkoen mugikortasuna sustatzeko eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko politikak jasotzen dira mugikortasun planean. Kanpotik datozenak, berriz, batez ere ibilgailu pribatuan datoz (% 90). Jendea batetik bestera mugitzeko arrazoi nagusia norberaren etxebizitza lantokitik edo ikasteko zentrotik urrun egotea da. 2001. urtean 4.172 bergararrek Bergaran egiten zuten lan (%59), kanpotik Bergaran 2.842k eta kanpoan lan egiten zuten bergararrak 2.425 ziren. Joera hori areagotu egingo zen ziurrenik azken urteetan. Herritarren iritziz, auzoetako datuak falta dira eta mugikortasun azterketak auzoetan ere egin beharko lirateke.

Garraio publikoari dagokionez, herri barrurako 3 zerbitzu daude: urbanoa, eskola-garraioa eta taxia. Landa-auzoetara iristeko arazoak daude, garraio publikoa ez da hainbat auzotara heltzen edo maiztasun gutxiarekin egoten da eta herritarrek ez dela egokia uste dute. Herri arteko garraio publikoak honako zerbitzuak ditu:

- o Bailara mailan: Eskoriatza-Eibar linean maiztasun handiagoa, Oñati Antzuola Elgetara baino.
- o Hiriburuekin: (PESA) Gasteizera eta Donostiara joateko maiztasun handiagoa Bilbora joateko baino.
- o Beste lotura batzuk: Zumarragatik (trena dago) Donostiara, Madrilera edota Bartzelonara joateko. Eibartik (trena dago). Bailaratik kanpoko Gipuzkoako beste herrieekin loturarik ia ez dago.

Herriaren kokapen geografikoa oso ona da eta hiriburuetara joateko aukerak onak eta zuzenak dira, baina autobusak eta trenak ez daude sinkronizatuta eta horrek askotan autoak erabiltzera bultzatzen ditu herritarrek. Horiek koordinatuko balira autoa gutxiago erabiliko luketela diote.

Herri barruko trafikoari dagokionean, Artekale itxi denetik Ibargaraiko kalean ordu puntetan auto-ilara handiak sortzen dira eta arazoa konpontzea eskatzen dute herritarrek. Bestalde, Artekale oinezkoentzat izan beharrean, Barrenkale izatea proposatzen dute herritarrek, merkataritza bultzatze aldera.

Bidegorria: ez dago oso baldintza onean (lur zoru ezberdinak, errepideek zatitua, jarraitasun eza, argiteria,...) eta gainera lehentasuna “erabiltzaile ez motorizatuei” eman partez “motorizatuek” jarraitzen dute lehentasuna izaten. Kirol, herri barruko garraio (ingurumen) eta urbanismo aldetik ezinbesteko instalazioa da. Soraluze-Mekolalde bukatuta dago eta erabilera asko igo omen da. Bidegorriak eta espaloiak auzoetara ere eraman behar dira hauetara oinez edo bizikletaz iritsi ahal izateko, bestela auzoetan kotxeen dependentsia handia dago.

Aparkalekuak: 2.603 aparkaleku plaza daude eta 3.971 garaje-plaza. Aparkaleku-sistema berria jarri da martxan, herri-guneko aparkaleku-arazoa konpontze aldera (TAO), baina epe luzerako aparkalekuak falta dira. Helburua izan da errotazioa bermatzea eta aparkalekuak erabiltzea dendetara joateko (merkataritza sustatzeko) eta gestioak egiteko, eta ez hainbeste lanera joateko. Hala ere, herritarren iritziz TAOrekin arazoa zerbait konpondu bada ere, aparkatzeko arazoak jarraitzen du herriko arazo nagusienetakoa izaten. Arazo hori dela eta, landa-auzoetako biztanleek uste dute herria ez dela erakargarria merkataritza ikuspegitik eta ez dela erraza bertara etortzea. Bestalde, jasotako proposamenen artean, aparkaleku gehiago sortzeko honako ekarpena egon zen: Mariaren Lagundiko eraikin berrian behetik gorainoko solairu guztiak aparkaleku bihurtzea.

Produktuen mugikortasuna: dena errepidez egiten da, ekarri nahiz eraman. Produktu gehienak, baserrikoak kenduta, kanpotik ekartzen dira, bai kanpoan egiten direlako edota bertan eginda ere kanpoan biltegitratzen direlako.

4. INGURUMENA

Bergararrek indargune moduan aipatzen dute herria naturatik hurbil egotea. Bergarako landa-auzoak, herri-guneko berdeguneak, inguruko mendiak eta ibilbideak... dira bergararrei beren herritik gehien gustatzen zaizkien elementuetako batzuk. Bergarak ondare natural aberatsa du.

Dena den, azken urteetako garapen-ereduak ingurumenean eragin nabarmena izan du, Bergaran ez ezik, Europako herrialde askotan: zabor asko ekoizten da (erabili eta bota kulturari erantzunez), gutxi birziklatzen da eta zaborteak gainezka daude; hondakin mota berriak sortu dira (elektronikoak, kasu); azpiegitura erraldoiak eraikitzen ari dira (autopistak, abiadura handiko trenak, etab). Eredu kontsumistaren adierazle batzuk baino ez dira. Jarraian eredu horren emaitzak ikusiko ditugu hainbat alorretan:

4.1. Hondakinak:

2009. urtean Bergaran honako hondakinak sortu dira: 6.647 Tn urtean, 1.24 kg/bizt.eguneko. Eskualde mailan, berriz, hona hemen jasotako hiri hondakinen banaketa:

- Zaborra: % 61.9
- Beira: % 7.3
- Papera eta kartoia: %11
- Ontzi arinak: % 2.3
- Hondakin geldoak: % 0.8
- Lorezaintzako hondakinak: % 18
- Txatarra % 1.7
- Egurra: % 3.2
- Eskombroa: % 7.6
- Pilak : %0
- Linea gris-marroia: % 0.4
- Fluoreszenteak: %0
- Ehunkiak: % 0.5
- Bateriak: % 0
- Radiografiak: % 0
- Sukaldeko olioak :% 0.1

Hondakin horietatik % 70 hondakindegira bideratu zen, eta % 30 balorizatu egin zen (%0,4 berrerabili, % 73,5 Birziklatu, % 9,7 Balorizazio energetikoa, % 6,8 Konpostatu, % 9,5 ezabatu). Herritarren ustez, zabor gehiegi sortzen dugu, batetik, sistema ekonomikoaren eraginez (merkatuaren ikuspegitik, zaborra sortzea errentagarria delako) eta, bestetik, bizimodu motak eraginda (erosotasuna, familia geroz eta txikiagoak, gauzak konpondu beharrean etengabe berriak erosteko joera, etab.). Dena den, produkzioaz gain, gutxi birziklatzen da, eta sistema eraginkorrak ezarri beharko lirateke horretarako (atez atekoa, kasu).

2008. urtean 10.412 Tn hondakin arriskutsu sortu zituen Bergarako industriak.

4.2. Natur baliabideak:

4.2.1. Lurra:

Baserriaren gainbeherak lurrarekiko harremanean eta lurraren zaintzan aldaketak eragin ditu. Egungo garapen-ereduak eta industriaren eta zerbitzuen sektorearen garapenak, baserriko lana uztea ekarri dute eta ondorioz, paisaian eta ohituretan aldaketa handiak eragin. Baserriarrek jada ez dituzte inguruak lehen bezala zaintzen eta garbitzen. Lurraren erabilera produktibista nagusitu da, esate baterako, basoen kudeaketan. Duela hamarkada batzuk monolaborantza hasi zen nagusitzen, pinua errentagarriagoa baitzen bertako landaredia baino. Pinudien landaketak baserriarrek basoak mantentzea eta hein batean zaintzea ahalbidetu zuen, bestela ziurrenik bazterrak sasiz beteko baitziren.

Baina monolaborantzak, oro har, arazoak sortzen ditu: gaitz berriak etortzen dira eta gaitz horiei aurre egiteko erabiltzen diren botikek basoari kalte egiten diote, animaliek alde egiten dute edo desagertu egiten dira... Ekosistema eraldatu egiten da, azken batean. Basoa zenbat eta dibertsifikatuago egon, hobe da basoaren eta ingurunearen osasunerako. Hori dela eta, Udalak bertako landaredia sartzeko laguntzak eskaini beharko lituzke, jabetza publiko zein pribatuko lurretan.

Egun, pinuaren prezioaren jaitsiera dela-eta, pinudiak ere ez dira lehen bezala zaintzen, eta basoak sastrakaz betetzen ari dira. Horrek sute-arriskuak areagotu egiten ditu.

Dena den, Bergarak badu oraindik ere baso-lur eta landa-lur ederrik. Horietako batzuk komunalak dira, eta beste batzuk pribatuak, baina baserritarrak hil ahala, geroz eta lur gehiago egongo da. Horiei begira, baso-politika eredu egoki bat garatu beharko litzateke, herri-lurrei epe luzerako errentagarritasuna ateratzeko. Oro har, ingurumen politika egoki bat beharko litzateke, besteak beste, etorkizuneko baserritarrentzat lur erreserbak izateko, nekazal lurak zaintzeko, ingurune batzuk babesteko...

Herri-guneari dagokionez, berdeguneak Bergararen indargune moduan ikusten dituzte herritarrek. Herri-gunean berdegune asko dago, hirigintza-arauek ezartzen dutenetik gora. Dena den, auzoetako egoera ez da hain ona eta herri-gunekoak ere hobeto zaindu beharko lirateke.

Industriguneen garapenak ingurumenaren degradazioa eta kutsadura eragin dituzte, eta lautada guztia urbanizatu egin da, baserriak desplazatuz.

4.2.2. Ura:

Herritar batzuen iritziz, Bergarak ur baliabide asko ditu. Oro har, erreken egoera ingurumen ikuspegitik kaskarra da, baina hobera egin du azken urteetan, hein batean ehungintzaren beherakada dela-eta (sektore horrek asko kutsatzen baitzuen). Deba ibaia kutsatuta dagoen arren, erreka garbi erabilgarri eta aprobetxagarriak badaude. Horren erakusgarri da bertako bizidunen egoera. Dena den, azken urteetan ibaiak eraldaketa esanguratsua jasan dituzte; ubideak eraldatu egin dira, autopistaren eraikuntzak eta bestelako azpiegituren eraikuntzek lur mugimenduak eragin dituzte eta erreketan eragin negatiboa izan du horrek. Auzoetan depuradorarik ez dagoenez, materia organikoa erreketan pilatzen da, bertako oxigeno kopurua gutxituz. Ondorioz, hainbat espezie desagertu egin dira (ur-arratoia, esaterako). Bestetik, landare inbaditzaileek ere arazo handia ematen dute.

Azken hamarkadetan erreken ikuspegi produktibista nagusitu da, eta ur baliabideekiko harreman-eredua asko aldatu da. Ura edateko eta energia sortzeko erabiltzen dugu soilik, eta osasunerako edo jolaserako baliabide moduan duen garrantzia desagertu egin da. Herritarren iritziz, urarekiko harreman mota hori berreskuratu beharko genuke, eta horrek ur baliabideak garbi eta osasuntsu mantentzen lagunduko luke.

Uraren kontsumoa ere asko hazi da azken hamarkadetan, eta ur baliabideen erreserbak izatearen garrantzia aipatu dute herritarrek zenbait bileratan. Garai bateko ur-biltegiak utzi egin ziren urtegia eraikitzean, baina agian horiek berreskuratu egin beharko lirateke.

Bukatzeko, hainbat baserri eta auzok ur zikinak batzeko sistemarik ez dauka, baina herritarren artean ez dago depuradoraren premiaren inguruan iritzi bateraturik.

4.2.3. Baliabide energetikoak

Garapen-eredu honen ezaugarri nagusietakoa dependentzia energetikoa da. Herritarren iritziz, energia gehiegi kontsumitzen dugu (argia eta berogailua, esaterako) eta kontsumo hori asko aldatu da belaunaldi batetik bestera. Gaur egun, Gipuzkoak duen energia dependentzia % 95ekoa da. Gas naturala, ikatza eta petrolioia kanpotik ekartzen ditu argindarra sortzeko. Gas eta elektrizitatearen %90 industriak kontsumitzen du, %3,6 zerbitzu sektoreak kontsumitzen du eta %6,3 etxeko kontsumoak.

4.3. Kutsadura

Kutsadura atmosferikoa: kutsadura mota honen eragile nagusietakoa kotxeak dira. Gure gizarteak kotxearekiko gehiegizko dependentzia garatu du. Hori dela eta, kutsadura mota hau murrizteko garraio publikoa gehiago sustatu beharko litzakete (urbanoak ordutegi zabalagoa eta sarriagoa izatea, auzoetara garraio publikoa jartzea...). Azken urteetan erabilera handitu egin da, zerbitzuak areagotu eta merketu direlako, eta bide horretatik jarraitu beharko litzateke. Bergarak hainbat bidegorri egokitu ditu ere, baina horien balorazioan ez dago erabateko adostasunik: batzuk pozik dira emaitzarekin, beste batzuen iritziz, ordea, gehiegi inbertitu da egokitze horretan (argi gehiegi, beharrik gabeko asfaltatzeak, etab). Bukatzeko, herritarrak bizikleta gehiago erabiltzera kontzientziatu beharko lirateke eta horretarako baldintza egokiak sortu herrian (gaur egun nahiko arriskutsua baita dagoen trafikoarekin bizikletan ibiltzea).

Kutsadura luminikoa: herrian dauden farolen % 59 argi-kutsadura sortzen zuen eta hori hobetzeko inbertsioa egin da farolak aldatuz. % 43ra jaitzi da kopurua. Faroletako bonbillei dagokienez, horien % 27 hondakin toxiko eta arriskutsuen sortzaile dira. Herritarren iritziz, oro har, argi gehiegi dago kalean. Jendeak gau ez ibili nahi dute eguna izango balitz moduan, eta mentalitate horri buelta eman behar zaio.

Kutsadura akustikoa: Orokorrean, herriko zarata iturri garrantzitsuena GI-627 errepidea da eragiten duen zarata mailagatik eta baita herriarekiko gertutasunagatik. Ibargarai hiribidean eta GI-627 errepidean zarata maila gaintzen da. Beste industria jarduera batzuk (Arcelor edota San Lorentzoko poligonoak) gatazkak sortzeko potentzialtasuna daukate. Gaueko aisialdia jasaten duten kaleak kontrolatu beharra ere ikusten da. Auzoetan errepideak dira zarata iturri nagusiak. Etorkizunean beste zarata iturri batzuk aurreikusten dira: AHT, Beasain-Durango Autovia eta Tranbia. Baina, hala ere, herritarren artean ez dago kutsadura akustikoaren kontzientziarik.

4.4. Azpiegitura handiak


Azpiegitura erraldoiek ingurumenean eragin handia izan ohi dute. Bergaran hainbat proiektu daude martxan: autopista, abiadura handiko trena, linea elektrikoa... Herritar batzuen iritziz, horiek ez diote onurarik ekarriko Bergarari. Baina egingo direnez hauen eragina aukera nola bihurtu eta hauei onura nola atera landu beharko litzakeela uste dute.

4.5. Ingurumenarekiko sentsibilizazioa

Ingurumen-arazoaren sakonean, herritarren iritziz, merkatuaren ikuspegia gailentzea eta herritarren sentsibilizazio eta kontzientziazio eza daude. Sentsibilizazio eza ingurumenarekiko, baserriaren lanarekiko, nekazaritzarekiko, ur baliabideekiko... Azken urteetan, kontzientziazioan egin da lan apur bat, baina kontzientziazioa portaerarako saltoa falta da. Herritarrek ingurune osasuntsu batean bizi nahi dute, baina euren portaerak ez datoz bat diskurtsoarekin eta ez daude prest euren erosotasunari uko egiteko. Horren adibide dira, autoaren gehiegizko erabilera, bakoitza bere autoan bakarrik joatea lanera (eta ez garraio publikoan edo bizilagunaren autoan), zaborra ateratzeko orduak ez errespetatzea, autoak gaizki aparkatuta uztea, kalean argi gehiago jartzea eskatzea, aparkalekuak falta direla etengabe esatea (eta ez arazoa auto-kopuruan dagoela)... Ingurunea zaintzea betebeharra izan behar luke hainbat herritarren iritziz, eta egun eskubideen eremuan geratzen da.

5. HEZKUNTZA

2006ko EUSTATEko datuen arabera, hona hemen Bergarako biztanleen ikasketa-maila:



Lehen hezkuntza bitartean honako zerbitzu hauek daude Bergaran:

- **Haurreskola:** Haurtxoa, partzuegoko haurreskola, Aranzadi eta Mariaren Lagundia. 2003-04 ikasturtean haur eskola zerbitzua eskaintzen hasi ziren 3 ikastetxe, 161 haurrekin. Gaur egun, 4 haur eskola daude eta horietan 114 ikasle matrikulatu dira 2010-2011 ikasturtean.
- **Haur hezkuntza:** Angiozarko eskola txikia, Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin. Haur hezkuntzan ere lau ikastetxe daude eta guztira 515 ikasle eta 27 gela daude ikasturte honetan.
- **Lehen hezkuntza:** Angiozarko eskola txikia, Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin. Lehen hezkuntzan lau ikastetxe daude eta guztira 784 ikasle eta 40 gela.

Auzoetako haurrak bertan ikastea geroz eta zailagoa da, eta auzoarekiko lotura mantentzeko garrantzitsua da eskola txikiak mantentzea. Auzotarren iritziz hauek indartu egin beharko lirateke.

Herritarren iritziz, ikastetxeen artean kohesio eta elkarlanerako joera gutxi dago, bakoitzak bere aldetik antolatzen ditu ekintzak (hiru Olentzero, hiru haratuztetako desfileak...). Eskolaren ikuspegia gailentzen da, eta ez herri-ikuspegia.

Balio aldetik, berriz, gutxi lantzen da oro har: sormena, izpiritu kritikoa, emotibitatea, parte hartzea, ikasteko gogoia, ingurumenarekiko lotura... Eta balio horiek herria eraikitzeko garrantzitsuak dira.

Bukatzeko, Eskolako programa Jaurilaritzatik dator ezarria askotan, eta gurasoek parte hartze gutxi dute eskolako erabakietan eta haurren heziketan.

Bigarren hezkuntzatik aurrera, berriz, honako zerbitzu hauek daude herrian:

- **DBH:** Aranzadi, Ipintza eta Mariaren Lagundia. DBH hiru ikastetxetan eskaintzen da eta guztira 647 ikasle daude eta 32 gela.
- **Batzilergoa:** Aranzadi eta Ipintza. Batxilergoa 2 ikastetxetan eskaintzen da eta guztira 233 ikasle eta 10 gela daude
- **Lanbide heziketa:** Mariaren Lagundia eta Miguel Altuna (erdi eta goi mailakoa). Lanbide Heziketan erdi mailako ikasketak eta goi mailakoak daude. Erdi mailakoetan 3 espezialitate daude. Goi mailako ikastaroetan 6 aukera daude. Guztira 263 ikasle daude.
- Horretaz gain Miguel Altunak formakuntza iraunkorra (4.000 ordu inguru) eta gradu-ondokoa (UNEDek emandako tituluarekin) eskaintzen ditu.

- UNEDek: unibertsitate mailako ikasketak eskaintzen ditu. 2010/11 ikasturtean 2.048 ikasle daude, 1.851 ikasketa arautuetan eta 197 arautu gabeko ikasketetan.
- EPA edo HHI: helduen hezkuntza eskaintzen du (261 lagun daude eta % 59 dira emakumezkoak). Herritarren iritziz, eskaintza zabala da, baina lanean ari direnentzat ez daude ordutegi egokian.
- Beste zerbitzu batzuk: Aransgi, Aspace, Musika Eskola.
- Ikasketa ez arautuetan pintura eta musika ikasketa-lerroek pisu handia dute herritarren ustez. Horretaz gain, ikastaro asko antolatzen dira (kontserbak egiteko ikastaroa, EH-ko historia, jostintza...) eta arrakastatsuak izan ohi dira

Hizkuntzaren ikuspegitik, 2000. urtetik aurrera D eredu dago ia soilik Bergarako lehen hezkuntzan. Lanbide Heziketari ikasleen % 74 D ereduan dago. Batxilergora arte D eredu da nagusia, baina herritarren iritziz, gero eta gaztelania gehiago erabiltzen da gazteen artean. Goi mailako lanbide heziketan % 50ekoa da euskaraz matrikulatutakoen kopurua. Bukatzeko, oro har, unibertsitate aurreko ikasketak ikasleen % 95 matrikulatu ziren D ereduan azken ikasturtean. (Debagoienean % 85 eta Gipuzkoan % 74). Etorkinen etorrerak hizkuntzaren inguruan ere eragin ditu hainbat kezka. Herritarren iritziz, eskolen helburuen artean egon behar lirateke etorkinen euskalduntzea eta gizarteratzea. Dena den, aldebiko harremana sustatu beharko litzateke, etorkinen kultura-aberastasuna guretzat ere aberasgarria baita.

Sexuari erreparatuta, lanbide heziketari dagokionez, erdi mailako ikasketetan % 27 dira neskak eta % 73 mutilak. Nesken % 90 administrazio kudeaketan matrikulatu da 2010-2011 ikasturtean. Goi mailako ikasketetan % 59 dira neskak eta % 41 mutilak. Neskek gizarte integrazioa, haur hezkuntza eta administrazioa/finantzak ikasten dute eta mutilek, berriz, mekanizazio bidezko produkzioa, proiektu mekanikoen garapen eta erregulazio eta kontrol sistema automatikoak.

UNEDen, berriz, ikasleen % 55 emakumezkoak dira. Ikasleen % 55a Psikologia, Historia, Geografia, Artea, Ekonomia eta Enpresa-zientziak edo Gizarte Lana eta Gizarte Hezkuntza ari da ikasten. Sexuari erreparatuta, emakumezkoen artean joera hori bera errepikatzen da. Emakumezkoen % 60 aipaturiko ikasketa horiek ari da egiten. Aldiz, gutxiengoa ari da ingeniaritza ikasketak edota fisika, kimika edo matematika ikasten. Gizonezkoen artean, berriz, Historia, Artea, Geografia, Ekonomia eta Psikologia ere nagusi badira ere, ingeniaritza-ikasketak ere garrantzia dute.

Arlokako lantaldeetako bileretan, zera aipatu zen: Bergarako pertsonen ikasketa-espezializazioak ez doazela beti herriak dituen premien ildotik. Esate baterako emakumeak industriatik urrun daude, datuen arabera. Ikasle-fluxuak aztertu beharko lirateke, eta herriak dituen premietara zuzendu hezkuntza-esparruak. Dena den, Lanbide Heziketak nahiko emaitza onak ematen ditu lan-merkatuari begira. Izan ere, Lanbide Heziketan formatzen diren pertsona gehienek lana aurkitzen dute. 2008-2009 ikasturtean ikasketak bukatu dituztenetatik, 71tik 3 daude langabezian.

Bestetik, herritarrek eta arlokako kideek indargune moduan ikusten dute herrian dagoen eskaintza, batez ere, lanbide heziketako zentroa eta unibertsitatea egotea. Dena den, elkarlanerako joera gutxi dago, ikastetxeen artean, ikastetxe eta enpresen artean, edota ikastetxe eta herriko eragileen artean. Zentzu horretan, Miguel Altunaren kokapen berria, aukera bat izan daiteke hezkuntza, lan-mundua, ikerketa eta berrikuntza oinarri izango dituen gune erreferente bat sortzeko Bergaran.

Unibertsitateari dagokionez, MUK eskualdeko gainerako herri handienetan zentroak ditu, baina Bergaran ez du fakultaterik. Zenbaitzuk gabezia moduan ikusten dute hori, eta beste zenbaitzuk, aldiz, ez dute beharrezko ikusten Bergaran MU egotea. Dena den, egungo unibertsitateak (UNEDek) herriko proiektuetan presentzia handiagoa izan beharko lukeela uste dute, eta Murekin elkarlanerako aukerak aztertu beharko liratekeela.

Arlokako lantaldeetan parte hartutako kideen iritziz, egungo gizartean pertsona ekintzaileak behar dira eta hori da hezkuntzak sustatu beharko lukeena: ekintzailetasuna. Miguel Altunatik sortu dira gisa horretara enpresa berri batzuk, 11 inguru, eta ondo funtzionatzen dute. Baina hori bultzatzeko laguntzak eta babesak behar dira. Eta jende ekintzailea, izaeraz. Krisi garaietan joera egoten da horretarako baina askotan pertsona horiek ez dira benetako ekintzaileak, eta ireki eta handik gutxira enpresa itxi egiten dute. Horren arrazoen artean aipatzen dira lehen ere jaso dugun “gizartearen funtzionarizazioa”; ekintzailetasunetik konformismora pasa gara eta geroz eta jende gehiagok nahi du funtzionario izan.

Etorkizuneko beharrei begira, gizartea ez da izango produktu kontsumitzailea, kultura kontsumitzailea izango da batez ere. Horri loturiko formakuntza falta da eta hor ekonomia ildo oso bat egon daiteke etorkizunean.

6. KULTURA

Kultura arloan erreferente izan da Bergara, bai herritarren parte-hartzean baita programazioan ere, eta hori lantalde guztietan aipatu da. Gaur egun ere, erreferentzia hori mantentzen da hainbat arlotan (musikan, esate baterako).

Elkartegintza ere aberatsa da kulturaren esparruan. Talde asko eta era askotakoak daude Bergaran: gastronomikoak / GKE / Kirolak / musika / dantza / antzerkia / argazkia / euskara / bildumazaleak / irratia / pintura / zeramika / taila / zezenzaleak / ekologia / nekazaritza / merkatariak / jarduera anitzekoak. Dena den, herrigintzako arlokako lantaldearen iritziz, talde askotan ez dago erreleborik edo erreferentziatzko pertsonarik. Halaber, taldeen arteko kohesio falta dago. Talde batzuk gainbeheran daude, gainera, (dantza-taldea eta txotxongiloak kasu) eta beste batzuk desagertu egin dira (antzerki-taldea, adibidez).

Ekipamenduei dagokienez, iraganean ekipamendu asko egon dira (zine asko, liburutegiak...). Orain, berriz, ekipamendu falta dago, daudenak zaharkituta daude, asko desagertu egin dira. Aipatutakoak, herriko giroan ere eragina du.

Goiko-estazioko musika taldeen lokalen antolamendua eredugarria dela eta gaztetxeak duen dinamika positiboa dela uste dute herritarrek.

Egungo kultura eskaintza inoiz baino zabalagoa da eta horretan Zabalotegi aretoa irekitzeak eragin du. Kultura eskaintza orekatua antolatzen da, bai kultura adierazpide ezberdinei dagokienez (arte eszenikoak, musika, zinea) bai publiko hartzaileari dagokionez (adina, sexua...). Baina herritarren iritziz une txikienez dagoen eskaintza ez da oso zabala.

Dagoenaren erabilera nahiko handia da. Zabalotegin 2010ean 8.727 lagunek hartu dute parte eta Aroztegi aretoko erakusketetara ere 8.653 pertsona hurbildu dira.

KULTURA-EKITALDIAK		Norentzat				
Non	Zer	Denentzat	Gaztetxoentzat	Helduentzat	Umeentzat	GUZTIRA
Udal pilotalekua	Bertso-saioa	182				182
	Gabonetako jolas parkea				578	578
	Ikuskizuna	314			950	1264
	Kontzertua	928				928
Udal pilotalekua Guztira		1424			1528	2952
Zabalotegi aretoa	Antzerkia	1188				1188
	Ikuskizuna	611				611
	Jaialdia		1309			1309
	Kontzertua	600				600
	Txotxongiloak-Antzerkia	120				120
	Zine emanaldia	79			371	1272
	Zine kluba	225				225
Zabalotegi aretoa Guztira		2823	1309	371	1272	5775
GUZTIRA		4247	1309	371	2800	8727

Taulan ageri diren kultura-ekitaldiak 2010eko urtarrilaren 1etik 2010eko azaroaren 21era artekoak dira. Datuak sarrera-salmenten arabera dira eta ez daude udal pilotalekuan egindako doako kontzertuak.

Herritarren iritziz, kirolean Agorrosin erreferentziazko gune bihurtu den bezala kulturaren erreferentziazko gune bat falta da. Pilotalekua kultur-ekintzetarako ez dela aproposa uste dute. Herritarren artean antolatzen denaren ezjakintasuna dagoenez, kontsumoa herritik kanpo egiten da sarri eta dekadentzia sententzia dagoela askotan aipatu da herritarren artean. Hala ere, ondo egindakoen artean Zabalotegiko aretoa irekitzea identifikatu dute herritarrek, urte batzuk pasa direlako herrian aretorik gabe.

Bergarako kultura ekitaldi nagusiak Udaleko kultura zerbitzutik antolatzen dira. Elkarte eta taldeek ere antolatzen dituzte ekitaldiak. Hona hemen adibide batzuk:

- **Argazkia:** lehiaketak, erakusketak eta ikastaroak antolatzen dituzte horietako batzuk udaleko kultura eta kirol zerbitzuekin elkarlanean.
- **Dantza:** Ikastaroak, erromerian dantza erakustaldia, erromeriak, lehiaketa eta dantza askatuko txapelketa azken hiru hauek udaleko kultura zerbitzuarekin batera.
- **Euskara:** Bertso eskola, eta Erramu zapatuko bertso saioan gaiak asmatu eta gai jartzaile lana, Amodiozko gutunen lehiaketa.
- **Bildumazaleak:** abenduan erakusketa.
- **Auzo elkarteak eta jubilatuen elkarteak:** Feriak, auzoko jaiak, errege kabalgata auzoan, urria azaro kulturala, txokolatea errege bezperan eta San Martzialen.
- **Musika:** kontzertu eta emanaldiak (gabonetan, inauterietan, auzoko jaietan, Santa Ageda bezperan...) antzerki musikalak, apirilean musika, kalejirak, dianak...
- **Pintura:** sariketak eta lehiaketak kultura zerbitzuarekin batera. Horretaz gain, ikastaroak, erakusketak, erakusleho lehiaketan epaimahaikide lanak.
- **Zeramika eta Taila:** erakusketak eta ikastaroak.
- **Zezenzaleak:** ikuskizuna kultura zerbitzuarekin batera.
- **Gastronomia:** Bakailao lehiaketa

Eskaintza oso zabala da, ekintza asko antolatzen direlako batetik eta sorkuntza dibertsifikatua dagoelako bestetik, baina zabalkundean ez dutela asmatzen uste dute herritarrek. Sormen kulturalaren emaitzak gizarteratzea falta da eta horrek herriko dinamikan positiboki eragingo luke. Jendea gehiago sortzera eta bertakoa kontsumitzera motibatuko litzateke, eta kalea espazio kultural moduan berreskuratuko genuke.

Dauden kultur zerbitzuen artean herritarrek emakumeen txokoa, ludoteka, gazte txokoa, auzoetan aisialdi guneak eta nagusiak elkartzeko guneak, faltan botatzen dituzte. Bestetik, ehungintza herrian desagertu denez eta Bergarako historian izan duen pisua kontuan hartuta, museoak egitea ere proposatu dute.

Bukatzeko, herritarren ustez herriak potentzialitate handia du eta ondare historikoari etekina atera beharko litzaike. Zentzu horretan, 2010eko uztailan, Bergarako ondare historiko-artistikoa balore turistikoan jartzeko plangintza onartu zuen Udalbatzak, kulturaren eta turismoaren arloetan behar diren berrikuntza eta garapenaren oinarriak ezartzeko, bergararentzat eta kanpoko bisitarientzat pentsatua. Bi lan lerro ezartzen ditu: Kultur azpiegiturak berri eta sortu (azpiegitura nagusia Kultur Gune berri bat izango litzateke, Bergarako Errege Seminarioan kokatua) eta produktu eta zerbitzu turistikoak berri, sortu eta ezagutzera eman. Errege Seminarioko Kultur gune berriari Liburutegia/Mediateka, Errege Seminarioaren Museoa, funtzio anitzeko aretoa eta bisitarien harrera gunea bilduko lirateke.

7. KIROLA

Bergaran kirolak pisu handia du, inguruko herrietan gertatzen den moduan: 15.000 herritarretatik 4.000ak dute kirol abonua eta 950 sarrera daude egunero. Kiroldegira doazen herritarren perfila 18-35 urte bitartekoa da.

77 kirol-esparru daude herrian, horietatik 63 publikoak (% 70 Udalarenak) eta 15, berriz, pribatuak (batez ere, Mariaren Lagundia ikastetxearenak). Finantzaketari dagokionez, %55eko autofinantzazioa dago.

Oro har, kirol-ekipamenduen eta eskaintzaren egoera ona da. Hona hemen azken asebetetze-inkestaren emaitzak: instalazioena 7 eta zerbitzu-eskaintzarena 8. Agorrosin gune erreferentea da. Baina herritarrek uste dute kirol ekipamenduak sakabanatuta daudela, eta faltan botatzen dituzte pista estaliak, umeez jolasteko aterpeak, squasha, tenisa, padela, erabilera anitzekoak.

Kirol esparruan, hiru eremu bereiz daitezke:

- Arruntak: % 33 erabilera anitzeko pistak dira (saskibaloikoak, areto-futbolekoak eta eskubaloikoak), % 24 tamaina txikiko aretoak (eskoletako psikomotrizitate-gelak, gimnasioak, spinning, karate, aerobik eta gisa horretako jardueretarako gelak) eta % 16 pilotalekuak. Pista gehienak estaligabeak dira, eta hori gabezia handia da eskola kirol eta kirol federaturako. Gainera batzuk egoera kaskarrean daude, harri txingor askea dela-eta. Bi zelai daude, biak futbolerako, bata baldintza onean belar naturalekoa (Agorrosin) eta bestea 2008an belar artifizialez estalia, (Ipintza). Agorrosingo estadioko atletismo pistak txapelketak egiteko ez da baliagarria lehiaketarako baldintzak ez dituelako betetzen.
- Bereziak: skate pista, rokodromoa eta bi bolatoki. Lehen biak erabiltzaileek sorturikoak dira, eta baldintza onean daude, nahiz eta skate pistak argitasun gehiago behar duen eta boulderrari segurtasun neurriak bermatuko dituen etxe baten berma falta zaion. Bolatokiak ez dira erabiltzen, zaindu gabe baitaude.
- Jarduera-eremuak 3 dira: 1) "Ur bizietarako atea" Labegaraieta kiroldegiaren parean, ez da asko erabiltzen ur-emariak baldintzatzen duelako. 2) mendiko ibilbideak (Trenbide Xenda eta Tumuluena Xenda), lehenean etenak daude. Gipuzkoako Mendi Federazioak egoera txostena aurkeztuko du aurki beharrezkoak diren neurriak hartzeko eskatzen. 3) "vasco navarro" trenbide zaharretako ibiltokiak, etekin handia atera dakioke baina ez dago oso baldintza onean (lur zoru ezberdinak, errepideek zatitua, jarraitasun eza, argiteria, iturriak, garraio-konexioak...). 2010ean Soraluze-Mekolalde atala egin da. GFaren datuen erabilera azterketa egiten ari da. Hala ere, erabilera asko igo ei da.

Bestetik, ur jarduerak eta jarduera gimnastikoak egiteko ekipamendu egokiak daude, batez ere Agorrosin ekintza gunea.

Premia bereziak dituzten herritarrentzat ere eskaintzak daude: fibromalgia, igeriketa edo gimnasia egokitua, gazte-kirola...

Emakumeen kirol praktika sustatzeko ekintzak egin dira: Atletismo taldea, areto bizikleta gazte, funky gazte eta batuka gazte. (60 ikasle). Udal zerbitzuko kirol jardueretan dabilta helduen gehiengo emakumea da: Pilates, yoga, areto-bizikleta, aerobik, funky, eta abar. Irisgarritasunaren ikuspegitik, berriz, pilotalekuak ez du igogailurik eta Labegaraietak ez du irisgarritasun ikuspeirik jaso eta betetzen.

Etorkizunera begira, kirola ulertzeko modua aldatzen joango da. Joera kirola osasunarekin, ingurumenarekin eta ongizatea gisako kontzeptuarekin lotzea izango da. Gainera, gizartearen zahartzearekin, 3. adinekoen kirola geroz eta gehiago sustatuko da, esate baterako, desplazamendu aktiboa (bidegorriak, etab.)